

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko urriaren 7a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak aurkeztua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzei buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza jaunak aurkeztua (25. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskaren erabilera arautzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (27. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza jaunak aurkeztua (30. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (32. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (33. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko irailaren 16an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko urriaren 28ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketa aurkezten ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1983 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen legezko arau gisa. Bertan ezarzen da funtzio publikoaren arloko zenbait xedapen foru lege mailako arauen bidez onetsi behar direla.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko negoziazioak 2002ko apirilaren 15ean bukatu ziren. Egun horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ordezkariak Itun bat izenpetu zuten 2002 eta 2003. urteetarako UGT, CCOO eta CEMSATSE sindikatuekin (azken honekin bakarrik kontratupeko langileei zegokienez).

Itun horrek kontu batzuk biltzen ditu, arau bihurtu behar direnak. 20. idatz-zatiaren arabera, Administrazioak kasuan-kasuan behar duen maila emanen die arau horiei, onetsi ondoren, indarra har dezaten.

Nafarroako Gobernuak, 2002ko apirilaren 22ko bilkuran, berretsi zuen 2002ko apirilaren 15eko Ituna. Agindu ere egin zion Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari hura betearazteko behar diren neurri eta ekinbideak, legezkoak eta erregelamenduzkoak, har zitzala, kasuan-kasuan dagokion organoak onetsi ondoren, indarra har ahal dezan.

Hori horrela, Itunak bi aurreikuspen biltzen ditu, Langileen Estatutuko aldaketa bana egitera behartzen dutenak. Bata funtzionarioek familiarrendako laguntza hartu ahal izateko betebeharrei dagokie. Bestea diziplina araubidean ezarritako hutsegite larrien zerrendari.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei dagokienez, 2002 eta 2003. urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan-baldintzei buruzko Itunak neurri batzuk sartu ditu, haien lansariak aldatzen dituztenak. Lansari horiek erakunde autonomo horri atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean ageri dira. Horregatik beharrezkoa da lege hura Itun horretako aurreikuspenetara egokitzea.

Zehazki, neurri hauek hartu asmo dira: funtzionarioen familiendako ezarritako laguntza kontratutarako langileei ere ematea; lan-istripuaren edo lan-gaixotasunaren ondorioz aldi baterako ezgaiturik dauden langileei, lansari finakoak ez ezik, gauez, jaiegunetan eta guardietan eginiko txandakako lanagatik, ezgaitu baino lehenagoko hamabi hila-beteetan kobratuak diruaren batezbestekoa pagatzea; eta A maila edo taldeko langileei gauez edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordaina pagatzea, baldin eta hori haien ohiko lanaldian gertatzen bada. Azkenik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko karrera profesionaleko sisteman aurreikusitako ebaluazio batzordeei eman asmo zaie langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako ordaina, bakar-bakarrik beren lanalditik kanpo badihardute.

Azkenik, sindikatuen ordezkariekin izenpeturiko Itunean beste bi kontu sartu dira. Bi kontu horiek, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko artikulua ukitzen ez badituzte ere, eginen badira, legezko gaitasuna behar dute, hala nola: funtzionario bihurtzeko beste prozesu bati ekitea, bai Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, bai Nafarroako toki entitateetan, eta, aurrekontuetatik kanpo, lan-eskaintza publikoan foruzain lanpostuak sartzeara.

I. KAPITULUA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginean sarturiko aldaketak

1. artikulua. 50. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honelaxe geldituko da:

“c) Bere kasa bizi ez den seme-alaba adingabe bakoitzagatik %3,00.”

2. artikulua. 63. artikuluarik m) letra erantsiko zaio, hauxe:

“m) Sexu-jazarpena.”

II. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean sarturiko aldaketak

3. artikulua. 10. artikuluko 5. idatz-zatia honelaxe geldituko da:

“5. 100eko 45eko edo hortik goitiko berariazko osagarria kobratzen duten langileek gauez edo jaiegunetan eginiko txandakako lanaren ordainak hartzen ahalko dituzte, baina bakarrik hori ohiko lanaldiaren barruan gertatzen denean; alegia, bertan egon beharrekoko guardiak edo lantokiz kanpo guardiak kanpo espresuki gelditzen dira.

Langile horiek ez dute behin ere izanen aparteko orduengatik kobratzeko eskubiderik”.

4. artikulua. 13. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerroalde bat erantsiko zaio. Honelaxe geldituko da:

“Txandakako lanik egiten ez duten langileei ordutegi horretan eginiko ordu bakoitzaren ordaina pagatuko zaie, ohiko lanaldia egiten duten langileei izan ezik, horiek ez baitute behin ere ordain hori kobratuko”.

5. artikulua. 20. artikulua honelaxe geldituko da:

“20. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko funtzionario eta kontratutarako langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen familiendako ezarritako ohiko laguntza bera kobratuko dute, haiendako ezarri bezal-bezala”.

6. artikulua. 23. artikuluarik beste lerroalde bat erantsiko zaio. Honelaxe geldituko da:

“Karrera profesionaleko sisteman aurreikusitako ebaluazio batzordeak osatzen dituzten langileek langileak hautatzeko epaimahaietako kideendako aurreikusitako ordaina kobratuko dute, baldin eta beren ohiko lanalditik kanpo bidihardute”.

7. artikulua. Beste xedapen gehigarri bat erantsen da, hauxe:

“Seigarrena.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek, lan-istripu edo lan-gaixotasunaren ondorioz aldi baterako ezgaiturik badaude, aldi aldikoak ez diren lansariak ere kobratuko dituzte, hots, gauez eta jaiegunetan lan egiteagatik edo, hala bada, ezgaitu aitzin, abiaburuko lanpostuan egin beharrekoko guardialdiengatik kobratuko zituztenak. Horretarako, gaineratu beharrekoko kopurua aldi baterako ezgaitu baino

lehenagoko hamabi hilabeteetan izanen zituzten lansari guztien batezbestekoa izanen da.

Edozein gorabehera dela eta, langileek aldi baterako ezgaitu aitzin abiaburuko lanpostuan aurreko hamabi hilabeteetan egiazki jardun ez badute, batezbestekoa aurreko lerroaldean aipatzen diren lansariak, aldian aldikoak ez direnak, alegia, kontuan hartuz zenbatetsiko da, betiere lanpostu hartan egiazki lanean jardun duten hila-beteetakoak”.

III. KAPITULUA

Langileendako beste neurri batzuk

8. artikulua. 1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beste epe bat ireki dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatupeko langileak eta kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko ahal daitezela, 1992rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko ekainaren 23ko 9/1992 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarria eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileendako neurriari buruzko abenduaren 30eko 15/1993 Foru Legeko 4. artikuluan xedatu bezal-bezala, eta neurri hauek garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

2. Neurri hauek garatzeko erregelamenduzko xedapenetan zehaztuko da ukituriko langileek bi hilabete epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, aukeratu ahal izateko.

9. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateek beste prozesu bati ekiten ahalko diote beren zerbitzuko kontratupeko langile finkoak funtzionario

bihurtzeko, erregelamendu bidez zehazten den prozedurarekin bat.

2. Erregelamenduzko garapen horretan zehaztuko da toki entitateek bi hilabete epea izanen dutela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, erabakitze beren zerbitzuko kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko prozesuari ekinen diotenentz. Prozesu horri ekitea erabakiz gero, ukituriko langileek epe bera izanen dute aukeratzeko.

10. artikulua. Nafarroako Gobernuak 2003. urterako lan-eskaintza publikoan gehienez ere 50 lanpostu sartuko ditu foruzain izateko, aurrekontuetatik kanpo.

Xedapen iragankorra

Foru lege honetan lansariei buruz aipatzen diren neurriak, atzerako eraginaz, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera beteko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedaturikoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa

Kultur ondarea kolektibitate baten ibilbide historikoaren eta nortasunaren lekukotasun funtsezkoenetako bat da. Hura osatzen duten ondasunak nafar guztien herentzia dira, bai eta nafarrek kultura unibertsalari eginiko ekarpen historikoaren lekukotasun behinena ere. Ondare historiko artistikoa babestu, kontserbatu, handitu, ikertu eta haren zabalkundea egitea botere publikoen betebeharr nagusietako bat da. Nafarroak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluari jarraituz, eskumen osoa du gai honetan.

Nafarroako kultur ondarearen kontzeptuak, lege honetan egiten diren aipamenetan, higigarrien ondarea, higiezinen ondarea eta ondare ez-

materiala -titularitate publiko zein pribatukoak-, eta herri kulturaren eta usadiozkoaren adierazpenak hartzen ditu bere baitan.

Legeak aurreikusten dituen babes mailak hiru dira, komunak ondasun guztientzat —higigarriak, higiezinak eta ez-materialak—: Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak, ondasun katalogatuak eta 1. artikulua kultur ondareztat hartzen duenaren kontzeptu zabal hori osatzen duten gainerako ondasunak.

Legeak halaber kultur ondareko ondasunen beste babes esparru bat aurreikusten du: ondasun katalogatuak, kultur ondareko garrantzi txikiagoko ondasunak, zeinen babes eta kontrolerako tresnak gehien bat udalen esku dauden. Figura horri toki intereseko kultur ondasunen izen eman zaio. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higieziari dagokienez, legeak babes eredu desberdinak arautzen ditu, ondasunaren tipologiaren arabera. Toki intereseko ondasun higiezinak, berriz, lege honen esparruan katalogatuak izateko aukeraz gain, hirigintzaren arloko legeriak horiek babesteko araututako tresnak ere aipatzen dira. Ondasun higigarriari dagokienez, horien gaineko araubide berariazkoak merkataritzaren kontrolari ematen dio arreta handiena. Legeak badu halaber ondare arkeologikoaren gaineko arautze osagarri bat, berrikuntza nabarmen bat dakarrena, babes arkeologikoko guneak sortzea, alegia.

Bestalde, legean garrantzi handia hartzen duen beste alderdi bat "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren sorrera da, ondarearekin zerikusia duten gai guztietan organo dinamizatzaile, fiskalizatzaile eta berme emailea izateko, legeak ezarritako xedek erdiestearren.

Aldi berean, legeak arautu eta ezarritako xedek ez dira babestera mugatzen, sustapen eta zabalkunde neurriak ere aurreikusten baititu, horien artean garrantzi bereziko hauexek: Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan kulturarako ehuneko bata deritzona ezartzea, Nafarroako kultur ondarearen inbenta-

ria sortzea eta monumentuen kudeaketari begira jarritako aginduak, jendearen bisitetarako erraztasunak emateko helburuarekin. Horrela, kultur ondarea babestu eta zaharberritzeko helburuetan gelditu beharrean, legearen asmoa zabalkundea dinamizatzea da, horixe izaki aipatutako xedeak lortzen joateak ekarriko duen ondorio logikoa.

Azkenik, legeak zehapen araubidea arautzen du, arau-haustea eta zehapenak sailkatuta eta horiek ezartzeko eskumena duten organoak zein diren zehazturik; horiekin batera, kautelazko neurriak eta neurri osagarriak ere ezartzen ditu.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

1. Lege honen xedea da Nafarroako kultur ondarearen alde egin, hura aberastu, babestu, kontserbatu, ikertu, zabaldu eta sustatzea. Lege honen aplikazio esparrua Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea da.

2. Nafarroako kultur ondarea Nafarroako historiarekin eta kulturarekin zerikusia duten ondasun higiezin eta higigarri guztiek osatzen dute, haien balio historiko, artistiko, arkitektoniko, arkeologiko, paleontologiko, etnologiko, dokumental, bibliografiko, zientifiko edo tekniko dela-eta babesa eta defentsa berezia merezi dutenak, herritarrak horietaz gozatzea eta hurrengo belaunaldien eskuetan ahal den egoerarik onenean geldituko direla ziurtatzeko xedearekin.

3. Orobat, Nafarroako herri kultura eta usadiozkoa osatzen duten ondasun ez-materialak eta haren hizkuntza berezitasunak ere Nafarroako kultur ondarearen parte dira.

2. artikulua. Kanpora begira jartzea

Nafarroako Gobernuak Nafarroako kultur ondarearen kanpoko zabalkundea eta kultur trukeak sustatuko ditu. Halaber, itunak edo hitzarmenak izenpetzea bultzatuko du.

3. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzak

1. Nafarroako Gobernuak eta udalak, zein bere eskumenez baliatuz, Nafarroako kultur ondare publikoaren eta pribatuaren integritateaz arduratuko dira, bai eta ondare hori babestu, kontserbatu, gehitu, zabaldu eta sustatzeaz ere, eta gizartearen parte hartzea bultzatuko, eta horretarako behar dituzten giza eta gauza baliabideak hartuko dituzte.

2. Administrazio publikoak lankidetzan arituko dira bakoitzaren eskumenak lege honen esparruan ahal den modurik onenean erabiltzeko.

3. Udalek kultur ondarearen parte diren ondasunen arrisku egoera ororen berri emanen diote berehala "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari, eta horrek Nafarroako Gobernuari jakinaraziko dio.

4. Nafarroako Gobernuak "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari eta udalei jakinaraziko dizkie lege hau aplikatzeko gauzatzen dituen jarduketak.

4. artikulua. Eliza Katolikoarekin lankidetzan aritzea

1. Eliza Katolikoak, Nafarroako kultur ondarearen zati handi baten titular den aldetik, ondare horren babesaz, kontserbazioaz eta zabalkundez arduratuko da eta xede horrekin arituko da lankidetzan Nafarroako administrazio publikoekin.

2. Nafarroako Gobernuak, "Vianako printzea" Kultur Ondarearen Zentroa eta Eliza Katolikoa kide izanen dituen batzorde mistoak ezarriko du erakunde horien arteko lankidetzak eta koordinazio esparrua, eta horien jarraipena egiten du.

3. Erregelamenduz ezarriko da, bidezkoa baldin bada, toki administrazioarekiko lankidetzak.

5. artikulua. Partikularren laguntza

1. Pertsona fisiko eta juridiko guztiek dute zilegitasuna Nafarroako administrazio publikoei eskatzeko kultur ondarearen gaineko legeria bete dadin. Auzitegietan errekurtsoak paratzeko zilegitasuna indardun arauak erregulatuko dute.

2. Edozein pertsonak jakinez gero kultur ondarearen zati den ondasun bat arriskuan edo hondaturik edo hondatzeko zorian dagoela, horren berri emanen dio berehalakoan dagokion toki administrazioari edo "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari.

LEHENDABIZIKO TITULUA **Kultur ondarearen babes mailak**

LEHEN KAPITULUA **Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak**

6. artikulua. Definizioa eta sailkapena

1. Kultur ondarearen ondasun nabarmenenak, higiezinak zein higigarriak, Foru Komunitatearen interesekoak direla deklaratu da.

2. Hauxe da ondasun higiezinaren sailkapena:

a) Monumentu historikoa: gizakiek sortutako eraikuntza edo bestelako obra materiala, unitate berezia osatzen duena.

b) Multzo historikoa: ondasun higiezinaren batuketara, jarraitua zein sakabanatua, unitate koherente eta mugatzeko modukoa, berezko entitatearekin, osatzen duena, ondasunetatik bakoitzak berebiziko baliorik ez badu ere.

c) Lorategi historikoa: Gune mugatua, gizakiak naturaren elementuak antolatuz sortua, eta fabrikako osagaiak ere izan ditzakeena.

d) Kokagune historikoa: »Alderdi naturala, non biltzen diren ondasun higiezin batzuk, arrazoi historiko edo kulturalak direla-eta iraganeko gertaerekin edo oroitzapenekin loturiko unitate koherentea osatzen dutenak edo balio historiko edo tekniko dituzten gizakien lanak gordetzen dituztenak.

e) Interes etnologikoko eremua: Aztarna multzoa, paisaia naturalaren gaineko esku-hartzeak, eraikinak eta instalazioak barne har ditzakeena, eta barrenean Nafarroako ondare etnologikoa osatzen duten elementuak dituztenak.

f) Eremu arkeologikoa: Gizakien esku-hartzearen aztarnak dituen tokia, sakon aztertzeko modu bakarria metodologia arkeologikoa erabiltzea denean. a), b), c), d) eta e) letrek definituriko kultur ondasun higiezinak aztarnak badituzte lur azpian eta horiek aztertzeko modu bakarria arkeologia bada, eremu arkeologikoaren izaera ere izan dute.

g) Eremu paleontologikoa: Unitate koherente eta berezko entitatea osatzen duten aztarna fosilduak dituen tokia, bakoitzak bere aldetik berebiziko baliorik ez badu ere.

3. Ondasun higigarriak Foru Komunitatearen interesekoak direla bereizirik edo bilduma gisa deklaratu daitezke.

7. artikulua. Deklaraziorako prozedura

1. Kultur ondasun bat Foru Komunitatearen interesekoa dela deklaratzeko beharrezkoa da espediente bat irekitzea aldezturik, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak bere kabuz edo edozein administrazio publikok edo pertsona fisiko edo juridikok eskaturik. Espedienterik ez irekitzeko erabakiak arrazoituak izan beharko dira.

2. 1. idatz-zatian aipatutako espedientearen instrukzioan entzutea eman beharko zaie interesatuei. Espedientea ondasun higiezinaren ingurukoa denean entzutea eman beharko zaio, halaber, dagokion udalari, eta jendaurreko epea ireki beharko da.

3. 1. espedienteak aipatzen duen espedienteak kasuan kasuko ondasunari buruzko txosten historikoak, arkitektonikoak, arkeologikoak eta artistikoak edukiko ditu, dokumentazio grafiko osotuekin eta kontserbazio egoerari buruzko txosten zehatz batekin batera.

8. artikulua. Espedientea jakinaraztea eta argitaratzea eta haren ondorioak

1. Kultur ondasun bat Foru Komunitatearen interesekoa dela deklaratzeko espedientea irekitzen denean, horren berri emanen zaie interesatuei eta ondasuna kokaturik dagoen herrietako udalei. Horrez gain, espedientea irekitzeko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eragina jakinarazten denetik bertatik izanen badu ere.

2. 1. idatz-zatiak aipatutako espedientea irekitzeak berarekin dakar berehalakoan eta behin-behineko aplikatzea Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunaren deklarazioa jaso duten ondasunetarako ezarritako babes araubidea.

3. Ondasun higiezinaren kasuan, 1. idatz-zatiak aipatzen duen espedientea irekitzeak berarekin dakar, udalari jakinarazten zaion unetik aitzina, ukituriko eremuan lur zatiketa, eraikitze edo eraisteko udal lizentzien tramitazioa etetea, bai eta ordura arte emandako lizentzien ondorioak ere etetea. Nolanahi ere, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak baimena eman dezake agerikoa denean obrak ez dituela ondasunaren kultur balioak kaltetuko; baimen hori udal lizentzia eman aurretik luzatu beharko da, salbu eta espedientea ireki aurretik emandako lizentzien kasuan.

9. artikulua. Deklarazio espedientearen amaiera

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen deklarazioa "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko Zuzendaritza Kontseiluak erabakiko du.

2. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen deklarazioaren erabakia hemezortzi hilabeteko epean hartuko da, espedientea irekitzen den egunetik hasita. Epe hori iraganik jarduketak artxibatuzeko eskatzen bada eta hurrengo hogeita hamar egunen barrenean ebazpenik ez badago, espedientea iraungi egingen da. Espedientea behin iraungirik, ez da berriz irekitzerik izanen hurrengo urteetan, ondasunaren titularrak berak eskatu ezean.

10. artikulua. Deklarazioaren edukia

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunaren deklarazioak honako zehaztapenak hartuko ditu:

a) Ondasunaren edo ondasunen deskripzio argi eta zehatza, hura identifikatzeko bide ematen duena, edukitzakoak eta osagarriak ere adierazirik, baleude, eta ondasun higiezinaren kasuan zehaztuko duena, halaber, deklarazioak lur azpia ere hartzen duen ala ez eta, bidezkoa bada, ondasun higiezinari loturiko ondasun higigarriak zein diren, horiek ere izanen baitute Foru Komunitateko intereseko kultur ondasunen izaera.

b) Ondasun higiezinaren kasuan, 7. artikuluari jarraikiz esleitu zaien klasea eta, bidezkoa bada, ondasunaren babes egokirako beharrezkoa den ingurunearen mugaketa. Ingurunea, bere baitan lur azpia ere har dezakeena, ondasunari ingurunearen aldetiko sostengua ematen dion espazioa da, eraikia zein ez, aldaketak jasanez gero ondasunaren balioetan, begiespenean edo azterketan ere kalteak eragin daitezkeenean.

2. Ondasunaren erabilera eta haren babesa bateragarriak ez badira, Foru Komunitateko kultur ondasunaren deklarazioak erabilera hori bertan behera utzi edo aldatu beharra ezarriko du, eta kasu horretan dagokion kalte-ordaina finkatuko da.

3. Foru Komunitateko kultur ondasun baten deklarazioak bere baitan izan ditzake zehazturik ondasun horren gaineko esku-hartzeak berariaz zuzenduko dituzten oinarriko irizpideak.

11. artikulua. Deklarazioa jakinaraztea eta argitaratzea

Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun baten deklarazioa interesatuei, Nafarroako Gobernuari eta ondasuna kokaturik dagoen herrietako udalei jakinaraziko zaie. Horrez gain, deklarazioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

12. artikulua. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erregistroa

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erregistroan inskribatuko dira eta, horiekin batera, irekitako deklarazio espedienteak, behin-behinekoak. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erregistroan agertu beharko dira bertan inskribaturiko ondasunen gainean eginitako egintza guztiak, deklarazioaren edukian eraginik izan badezakete. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun baten titularrak ondasun horretan

eragina izan dezaketen egintza juridiko eta tekniko guztien berri eman beharra dauka erregistroari.

2. "Vianako Printzea" kultur ondarearen zentroaren eginbeharra da erregistro hori kudeatzea.

3. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erregistroaren datuak jendaurrekoak dira, ondasunen edo horien titularren segurtasuna, pertsonen intimitatea eta legeak babestutako merkataritza eta zientzien arloetako sekretuak direla eta babestu beharreko informazioak salbu.

4. Monumentu eta lorategi historikoen kasuan, Nafarroako Gobernuak edo kasuan kasuko udalak, haren jabea bada, ofizioz eskatuko du Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen deklarazioa.

13. artikulua. Deklarazio bat ondorioz gabe uzteko prozedura

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunaren deklarazioa ondorioz gabe uzteko deklaraziorako behar diren tramiteak eta baldintza berberak bete beharko dira, 8.3 artikulua aipatzen dituen erakundeek txosten espres eta lotesle eman ondotik.

2. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunaren deklarazioa ondorioz gabe uzteko kausatzat ezin dira hartu lege honek kontserbazio eta mantentzerako araututako betebeharrak ez betetzetik heldu direnak.

II. KAPITULUA

Katalogaturiko ondasunak

14. artikulua. Definizioa

Garrantzia izan arren, Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen ezaugarriak ez dituzten Nafarroako kultur ondarearen ondasunak Nafarroako Kultur Ondarearen Katalogoan sartuko dira.

15. artikulua. Ondasun higigarrien katalogazioa

1. Nafarroako Kultur Ondarearen Katalogoan ondasun higigarriak sartzeko erabakia "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko Zuzendaritza Kontseiluak hartuko du. Ondasun higigarriak berezirik edo bilduma gisa katalogatu ahalko dira.

2. Ondasun higigarrien katalogazio espedientei administrazio prozeduraren gaineko arau orokorrak zaizkie aplikatzekoak. Espedienteen iraupenari buruzkoa 10. artikulua arautzen du, baina kasu horretan espedienteak ebazteko epea hamasei hilabetekoa izanen da.

3. Nafarroako Kultur Ondarearen Katalogoan agertu beharko dira bertan inskribaturiko ondasunen gainean eginiko egintza guztiak, horien katalogazioan eraginik izan badezakete. Katalogaturiko ondasun baten titularrak ondasun horretan eragina izan dezaketean egintza juridiko eta tekniko guztien berri eman beharra dauka katalogoari.

16. artikulua. Ondasun higiezinaren katalogazioa

1. Ondasun higiezinak toki intereseko kultur ondasun deklaratuaz katalogatzen dira.

2. Toki intereseko kultur ondasunen deklarazioarako eskumena udalaren osoko bilkurarena da. Deklarazioa administrazio espedientea tramitatu ondoren egiten da. Espedientean kultur ondarearen arloko teknikari baten aldeko txostena agertu beharko da.

3. Toki intereseko kultur ondasunaren deklarazioarako erabakiak berarekin ekarriko du ondasun hori Nafarroako Kultur Ondarearen Katalogoan inskribatzea.

4. Toki intereseko kultur ondasunaren deklarazioak ondorioz gabe uzteko deklarazioarako agindutako prozedura bera bete beharko da ezinbestez, eta "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko Zuzendaritza Kontseiluaren erabakia izanen da.

5. Ondasun higiezinaren katalogazio orok barne hartuko ditu babes arkeologikoko gunearen deklarazioa jaso duten aztarnategi arkeologiko guztiak, udalerrian daudenak.

III. KAPITULUA

Nafarroako kultur ondarea osatzen duten gainerako ondasunak

17. artikulua. Definizioa

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunez eta ondasun katalogatuez gain, Nafarroako Kultur Ondarearen parte dira, halaber, deklarazio edo katalogazioaren xede izan ez badira ere, 1. artikuluan deskribaturiko balioak dituzten ondasun higigarriak zein higiezinak.

2. Nolanahi ere, Nafarroako Kultur Ondarearen parte dira honako ondasun higigarri hauek:

a) Zoologia, botanika, mineralogia eta anatomiako bildumak eta ale bereziak eta interes paleontologikoa duten objektuak.

b) Historiaren abiapuntu garrantzitsuak diren ondasunak.

c) Esku-hartze arkeologikoen emaitza.

d) Interes artistikoko ondasunak.

e) Ehun urte baino gehiagoko altzariak, musika tresnak, inskripzioak, txanponak eta zigilu grabatuak.

f) Ondare etnologiko higigarria.

g) Zientzia, teknika eta industria ondare higigarria.

h) Ondare dokumentala eta ondare bibliografikoa.

18. artikulua. Ondare dokumentala

1. Lege honen ondorioetarako, dokumentutzat hartzen da ahozko zein idatzizko adierazpen oro, irudi edo soinuen, naturala zein kodetua, edozein euskarri materialetan jaso, bai eta gizakien eta gizataldeen eginkizun eta gizarte jardueren testigantza den beste edozein adierazpen grafiko, ikerlanak eta sormen lanak izan ezik.

2. Nafarroako ondare dokumentala kasu hauek tartutako dokumentuek osatzen dute:

a) Nafarroako Gobernuak, toki enteek eta erakunde autonomoek, enpresa publikoek eta horien menpeko gainerako entitateek beren eginkizunetan eta bere jardura politiko eta administratiboaren ondorioz sorturiko edo jasotako dokumentuak.

b) Nafarroan aritzen diren pertsona juridiko pribatuak beren eginkizunetan sorturiko edo jasotako dokumentuak, berrogei urte baino gehiagokoak.

c) Edozein pertsona fisikok sorturiko edo jasotako dokumentuak, ehun urtetik gorakoak, eta hain zaharrak izan gabe ere ehun urte baino gutxiagoko iraupena duten euskarrietan sortutakoak ere, hala nola euskarri fotokimiko edo magnetikoko ikus-entzunezkoak, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

d) Nafarroako titularitate publikoko artxiboetan gordetako funtsetako dokumentuak.

3. Nafarroan egoitza duten estatuko administrazioaren organoetako dokumentu guztiak, notarioetakoak eta erregistro publikoetakoak eta justizia administrazioaren organoetakoak ere Nafarroako ondare dokumentalaren zati dira.

19. artikulua. Ondare bibliografikoa

1. Lege honen ondorioetarako, ondasun bibliografikoak dira ikerlan edo sormen lanak, eskuz idatzitakoak, inpresatutakoak, irudi zein soinuenak edo edozein euskarritan erreproduzitutakoak.

2. Honako ondasun bibliografiko hauek osatzen dute Nafarroako ondare bibliografikoa:

a) Nafarroako ekoizpen bibliografikoaren aleak, lege gordailuaren xede baldin badira, ezau-garri nabarmen berezigarriren bat dutenak.

b) Nafarroako ekoizpen bibliografikoa osatzen duten lanen aleak eta Nafarroako hizkuntza esparruarekin edozein motatako lotura dutenenak, Nafarroako liburutegi publikoetan bina ale, gutxienez, ez dagoela jakinez gero.

c) Ehun urte baino gehiagoko lanak, eskuz idatzitako lanak eta hain zaharrak izan gabe ere ehun urte baino gutxiagoko iraupena duten euskarrietan sortutakoak ere, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

d) Titularitate publikoko liburutegietan gorderiko funtsetako ondasunak.

e) Nafarroan gorderiko lan eta funts bibliografiko guztiak, aurreko ataletan ez badaude ere, Nafarroako Gobernuak erabakita sarturik daudenean horietan, berezitasuna, batasun tematikoa dela-eta edo pertsona nabarmen batek bilduak direlako.

II. TITULUA

Nafarroako kultur ondarea babestea

LEHEN KAPITULUA

Ondasun higigarrien eta higiezinaren araubide komuna

Lehen atala

Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasun guztiei aplikatu beharreko araubidea

20. artikulua. Kontserbatu beharra.

1. Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasun guztiak horien jabeek eta edukitzaileek kontserbatu behar dituzte. Erregelamendu bidez prozedurak ezarri ahalko dira zenbait ondasun mota garbitu eta deuseztatzeko, Foru Komunitatearen interesekoak deklaratu edo katalogatu ez badira.

2. Kultur ondarearen parte diren ondasunen titularrek informazioa emanen dute ondasunen egoerari buruz eta horien erabilerari buruz, organo eskudunek hala eskatuz gero.

21. artikulua. Zaharberitzea

1. Nafarroako kultur ondareko ondasunak zaharberrituko dira horien balio estetiko eta historikoak iraunarazi eta agerian uzteko xedearekin eta antzinako funtsari zor zaion begirunean oinarrituta.

2. Zaharberritu aurretik eta bitartean ondasunaren azterlan arkeologiko eta historikoa beharko da.

3. Lan horietarako usadiozko teknikak desegokiak diren kasuan, Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasunen sendotze lana ziurtatzeko kontserbatu eta eraikitze teknika moderno guztiak erabiliko dira, horien eraginkortasuna oinarri zientifikoekin frogatu eta esperientziaz bermatu delako.

4. Ondasun horretan agerian dauden garai guztietako ekarpenak errespetatuko dira. Estilo bat baino gehiago dagoenean bata bestearen gainean, azpian dagoena desagerrarazteko arrazoi bakar eta salbuespenekoa izanen da kendutako elementuek interesik ez izatea. Horien balioaren gaineko iritzia "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren esku egonen da.

5. Nafarroako kultur ondareko ondasun batean falta diren zatiak ordeztzeko elementuak harmoniaz txertatu beharko dira, jatorrizkoetatik argi eta garbi bereizten direla, zaharberitzeak ondasunaren balio historikoa faltsutu ez dezan.

6. Gehitutako elementurik ez da onartuko ondasunaren intereseko zati guztiak, haren usadiozko trazadura, osaeraren oreka eta ingurumenearekin dituen harremanak errespetatu ezean.

22. artikulua. Enkanteak

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideez baliatu daiteke Nafarroan enkantean jartzen den Nafarroako kultur ondareko edozein ondasunen kasuan. Horretarako, enkanteen arduradunek Nafarroako Gobernuari jakinaraziko dizkiote ondasun horietan eragina duten enkanteak, erregelamendu bidez ezarriko den aurrerapenez. Nafarroako Gobernua beste entitate publiko baten alde baliatu ahalko da eskubide horietaz.

23. artikulua. Esku-hartzeak etetea

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak edozein obra edo esku-hartze galaraz deza-ke Nafarroako ondarearen zati diren ondasunetan, Foru Komunitatearen interesekoak direla deklaraturik ez badago ere. Horretarako, kasuan kasuko udalari eskatuko dio eteteak ondorioak izateko behar diren neurriak har ditzan, eta hala ez badu egiten berak hartu ahalko ditu, ordezkotza izateko. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak bi hilabeteko epean ebartziko du eteniko obrak edo esku-hartzeak aurrera segitu ahal duen edo Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun deklaratzeko espedientea ireki behar den.

2. Ondasun higiezin baten kultur balioak babesteko, udalek obra lizentzia bat emateko tramitazioa eten ahal izanen dute eta Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun deklaratzeko espedientea irekitzeko eskatu.

Bigarren atala

Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunei eta ondasun katalogatuei aplikatu beharreko araubidea

24. artikulua. Babestu eta mantendu beharra

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen edo ondasun katalogatuen jabeek, edukitzaileek eta horien gaineko eskubide errealen titularrek haiek babestu eta mantendu eginen dituzte, daukaten kultur balioaren integritatea ziurtatzeko. Ondasun horien erabilerak beti bermatuko du haien kontserbazioa.

2. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak edo ondasun katalogatuak ezin dira suntsitu.

3. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen edo ondasun katalogatuen jabeek, edukitzaileek eta horien gaineko eskubide errealen titularrek ez diete trabarik jarriko espezialistei, ondasunak aztertu eta behar bezala katalogatu ditzaten.

25. artikulua. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa lehentasunez erosteko eskubideaz baliatu daiteke Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen eta ondasun higigarri katalogatuen jabetzaren edo haien gaineko gozamenerako edozein eskubide errealen kostu bidezko eskualdaketaren gainean. Udalak ere, ordeko izaeraz, eskubide horretaz baliatu daitezke Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun higiezin gainean. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen jabeek edo horien gaineko eskubide errealen titularrek modu frogagarrian jakinaraziko diote Nafarroako Gobernuari ondasunak edo eskubideak eskualdatzeko asmoa, eta adieraziko dituzte prezioa, eskualdaketaren baldintzak eta eskuratzailaren nortasuna. Eskualdaketa ondasun higiezin baten gainekoa denean, Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko udalari jakinaraziko dio.

2. 1. idatz-zatiak aipatutako jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak eta, ordeko izaeraz, udalak lehentasunez erosteko eskubideaz baliatu daitezke. Lehentasunez erosteko eskubidea beste erakunde publiko

batzuen alde erabili daiteke, kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan.

3. 1. idatz-zatiak aipatzen duen eskualdaketa jakinarazten ez bada edo jakinarazitako baldintzetan formalizatzen ez bada, Nafarroako Gobernuak eta udalak atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu ahalko dira, lehentasunez eskuratzeko eskubiderako ezarritako modu berean, Nafarroako Gobernuak modu frogagarrian eskualdaketaren berri duenetik hasita bi hilabeteko epean.

4. Artikulu honek ezarritakoa ez zaie aplikatu monumentu ez diren multzo historikoak osatzen dituzten higieziinei, ez eta babes inguruneetan sartutako higieziinei ere.

5. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak udalek erabili ahalko dituzte higiezin katalogatuen kasuan, aurreko idatz-zatiek ezarritako moduan. Lehia egonez gero, udalaren eskubideak lehentasuna izanen du. Higiezin katalogatuen jabeek edo horien gaineko eskubide errealen titular direnek eskualdaketak jakinaraziko dizkiote udalari artikulua honetan ezarritako moduan.

26. artikulua. Eskritura publikoak

Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak edo ondasun katalogatuak erosteko edo horien gaineko gozamenerako eskubide errealek eskualdatzeko eskritura publikoak formalizatzeko, 27. artikulua ezarritakoa betetzen dela frogatu beharko da aurretik. Halaber, beharrezkoa izanen da hori frogatzea dagozkien tituluak inskribatzeko.

27. artikulua. Eskualdaketaren mugak

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak eta Foru Komunitateko administrazioaren edo Nafarroako toki administrazioen jabetzako ondasun katalogatuak preskribiezinak eta besterenezinak dira, salbu eta administrazioen artean egiten diren eskualdaketak.

2. Elizaren erakundeen ondasunen eskualdaketa legeria indardunak arautuko du.

Hirugarren atala

Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunei aplikatu beharreko araubidea

28. artikulua. Kontserbazio jarduketaren programak

Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen titularrek, kontserbatzeko beharkizuna betetzeko, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari aurkeztuko diote ondasun horiek kontserbatzeko beharrezkoak diren jarduketaren aurrei-

kuspenera zehazten duen programa, ondasunak egokiro mantentzeko beharrezkoa baldin bada.

29. artikulua. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak eskura jartzea

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen jabeak eta edukizaitzak, baita ondasun horien gaineko eskubide errealeen titular direnak ere, beharturik daude trabarik ez jartzera honakoak egiteko:

a) Erakunde akademiko batek ezaguturiko ikertzaileek ondasunak aztertu eta iker ditzan, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren bermea beharko duen eskaera arrazoitua aurkeztu ondoren.

b) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunaren izaera adierazten duten elementuak paratzea.

c) Ondasunek jendearen bisitak hartzea, erregelamenduz ezarriko den baldintzetan, hilean lau egunetan gutxienez, aldezturik zehaztuko diren egun eta orduetan.

2. 1.c) idatz-zatiak ezarritakoaren ondorioetarako, bisiten araubidea zehazterakoan kontuan hartuko dira ondasun mota eta ezaugarriak eta, ondasun higiezinaren kasuan, ukituriko udalaren txostena. Justifikaturiko kasuetan, Nafarroako Gobernuak bisita publikoaren ordezkari ondasunak kultur zentro batean uzteko agindu dezake, erakusgai jarri daitezkeen erregelamendu bidez ezarriko diren epe eta baldintzetan.

II. KAPITULUA

Ondasun higiezinaren babes araubidea

Lehen atala

Foru Komunitatearen intereseko ondasun higieziari aplikatu beharreko araubidea

30. artikulua. Hirigintzako lizentzien berrikuspenera

Higiezin bat Foru Komunitateko kultur ondasun dela behin deklaraturik, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak espediente irekitzeak etenarazitako hirigintza lizentzien gaineko txosten loteslea prestatuko du, lau hilabeteko epean eta kasuan kasuko udalaren iritzia entzun ondoren. Txostenaren ondorioz udal horrek lizentzia bat aldatu edo baliogabetu behar izanez gero, Nafarroako Gobernuak hartuko du bere gain dagokion kalte ordaina, bidezkoa bada hura ordaintzea, hirigintzaren arloko legeriak ezartzen dituen irizpideak aplikaturik.

31. artikulua. Eraispenerako debekua

1. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinak ezin dira eraitsi. Salbuespen gisa, kalifikazioa ematean aintzat hartu ziren kultur balioak galdu baldin badituzte eraitsi ahal izanen dira, zati batean edo osorik. Higiezinak eraitsi aurretik beharrezkoa da betetik edukitzea deklarazioa baliorik gabe uzteko tramite guztiak eta, higiezinaren lur azpian interes arkeologikoko hondakinak izanez gero, beharrezkoa da aginduzko esku-hartze arkeologikoa ere eginik izatea. Esku-hartze arkeologikoa "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko langileek gauzatuko dute.

32. artikulua. Hirigintza planeamendua

1. Higiezin bat Foru Komunitatearen intereseko dela deklaraturik gero, deklarazioaren baldintzak higieziaren eragina duten hirigintza plan eta arau nagusitako zaizkie; plan eta arau horiek deklaraziora egokitu beharko dira onespenera jaso baino lehen, edo, deklarazioaren aurretik indarra baldin bazuten, aldatu egin beharko dira.

2. Multzo historikoen, eremu arkeologikoen, eremu paleontologikoen, kokagune historikoen eta interes etnologikoko eremuen kasuan, baita Foru Komunitatearen intereseko edozein kultur ondasunaren babes inguruneen kasuan ere, tokian tokiko udalak babeserako hirigintza tresna bat prestatuko du edo indarra duen bat egokituko du. Planeamendurako tresna horiek onespenera jasotzeko "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren aldeko txostena beharko da.

33. artikulua. Obretarako baimena

1. Foru Komunitatearen intereseko edozein kultur ondasunetan egin gogo den esku-hartze orok "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren baimena jaso beharko du erregelamenduz ezarriko den epean, udalak lizentzia eman ondotik.

2. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezin batean esku hartzeko edozein proiektu txosten bat izan beharko du barnean, ondasunaren balio historiko, artistiko eta arkeologikoak, egungo egoera eta proposatzen den esku-hartzearen ebaluazioa azalduko dituen. Txostena Nafarroako Kultur Ondarearen Zentroak egiten du.

3. 1. idatz-zatiak aipatzen duen "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren ahalmen hori baliatzeko irizpideak 34. artikuluko finkaturiko oinarritzko irizpide orokorrak eta deklarazio bakoitzaren irizpide berariazkoak izanen dira, kasu bakoitzean proiektaturiko esku-hartzea eta ondasunaren kultur balioen babesa bateragarriak ote

diren erabakitze behar den zuhurtziazko balorazioari tokia uzteko aukera baztertu gabe.

4. Udalek, interesatuari jakinaraztearekin batera, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari emanen diote Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan eragina duten hirigintzako lizentzien berri.

5. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezin baten egoera txarraren ondorioz, kasuan kasuko udalak neurriak hartu behar baditu hirugarrenengan kalterik sor ez dezan, beharrezkoa izanen da "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari jakinaraztea aldezturirik, berrogeita zortzi ordutan esku-hartzearen baldintzak ezar ditzan. Esku-hartze hori Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaio.

34. artikulua. Esku hartzeko irizpideak

1. Foru Komunitatearen intereseko monumentu historiko, lorategi historiko, eremu arkeologiko edo eremu paleontologiko batean esku hartzeko beti bete beharko diren irizpideak hauexek dira:

a) Ondasunaren kontserbazioak, berreskurapenak, zaharberritzeak, hobekuntzak eta erabilerak deklarazioa eragin zuten balioak errespetatuko dituzte, gaur eguneko osagaiak, teknikak eta materialak erabiltzeko baimena eman ahal izanzen bada ere, ondasuna haren erabilerara hobeki egokitzeko eta osagai edo garai zehatzak baloratzen.

b) Ondasunaren ezaugarri arkitektonikoen, historikoen eta arkeologikoen azterketa zientifikorako baimena emanen da.

c) Ondasunaren ezaugarri tipologiko nabarmenenak, espazioaren antolamendukoak, bolumetrikoak zein morfologikoak, gorde eginen dira.

d) Debekaturik dago ondasuna berregitea, osorik edo zati batean, non ez den jatorrizko parteez baliatuz egiten, bai eta benetakotasun historikoa faltsutzen duten gehikuntza mimetikoak egitea ere.

e) Debekaturik dago ondasunari zatiak kentzea, salbu eta ondasuna hondatzea eragiten dutenean edo kentzeak interpretazio historiko hoberako aukera ematen duenean. Kasu horietan, kendu behar diren zatiak dokumentatzea ezinbestekoa izanen da.

f) Debekaturik dago publizitatea, kableak, antenak, eta ageriko hodiak paratzea ondasunaren aurrealdeetan eta teilatuetan, baita zerbitzu publiko edo pribatuaren instalazioak ere, begiesterik aldaketa handiak ekartzen badituzte.

2. Foru Komunitatearen intereseko multzo historikoetan esku hartzeko bete beharko diren irizpideak hauexek dira:

a) Multzoaren hiri eta arkitektura egitura gordeko dira eta halaber giroaren eta paisaia-soslaiaaren ezaugarri orokorrak. Debekaturik daude lerrokatzen aldaketak, eraikigarritasunaren aldaketa, lur zatiketak eta higiezin gehikuntzak, multzoaren izaeraren kontserbazio orokorrerako lagungarri izan ezean.

b) Debekaturik daude hiri, elektrizitate, telefono instalazioak eta beste edozein, airekoak nola aurrealdeari itsatsitakoak, eta lur azpitik eraman beharko dira. Telebistako antenak, uhinak jasotzeko pantailak eta antzeko gailuak multzoaren edo haren zati baten hiri irudia ez kaltetzeko moduko tokietan paratuko dira.

c) Debekaturik dago publizitateko iragarkiak eta errotuluak jartzea. Zerbitzu publikoak iragartzen dituzten errotuluak, seinaleztapenekoak eta merkataritzakoak ongi etorri beharko dira multzoarekin.

3. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinaren babes inguruneetan egiten diren esku-hartzeen bolumenak, tipologiak, morfologiak eta kromatismoak ezin dute aldatu eremuaren izaera, arkitekturaren nola paisaiaren aldetikoa, ezta ondasuna behar bezala ikusteko arazorik sortu ere. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinaren inguruneetan debekaturik dago lurraldeko geomorfologia eta topografiari aldaketa larriak ekarri ahal dizkioten lur mugimenduak egitea, baita zaborra, eraikitze hondakinak edo hondarrak botatzea ere.

35. artikulua. Erabileraren aldaketak baimentzea.

Monumentu baten erabileraren aldaketak "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren baimena beharko du, ukitutako udalak dagokion udal lizentzia eman aurretik eginiko txostenarekin.

36. artikulua. Higiezinak tokiz aldatzea

Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinak ezin dira inguruneetik bereizi. Indardun legerian ezarritako baldintzak betez gero eta, betiere, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak baimena eman, hirigintza lizentzia eskuratu eta, bidezkoa denean, lur azpiko esku-hartze arkeologikoa egin ondoren baizik ezin izanen dira altxatu edo tokiz aldatu. Esku-hartze hori "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak zuzenduko du.

37. artikulua. Desjabetzea

Foru Komunitateko administrazioak eta toki administrazioek, gizartearen interesa dela-eta, Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinak erabili edo begiesteko oztopo diren higiezinak, ingurunearen harmonia hausten dutenak edo kontserbaziorako arriskua dakartenak desjabetzeko erabakia hartu ahalko dute.

Bigarren atala**Katalogaturiko ondasun higieziinei aplikatu beharreko araubidea****38. artikulua.** Babes araubidea

Higiezin bat toki intereseko kultur ondasun dela deklaratzeko berarekin dakar lege honek katalogaturiko ondasunetarako ezartzen duen araubide juridikoa aplikatzea berehalakoan. Ondasun horiek babesteko arau gehigarri oro hirigintza arloko legeriak ezarritako tresnen bitartez ezarriko da.

III. KAPITULUA**Ondasun higigarrien babes araubidea****Lehen atala****Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasun higigarri guztiei aplikatu beharreko araubidea****39. artikulua.** Informazioa eman beharra.

1. Nafarroako kultur ondarea osatzen duten ondasun higigarrien jabeek edo edukiztaileek horien berri eman beharko diote "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari, ondasun horiek erregelamenduz ezarriko diren ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak Nafarroako Gobernuari eta tokian tokiko udalari jakinaraziko dio.

2. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak 1. idatz-zatiak aipatzen dituen ondasunen titularrei eskatu ahalko die ondasunei buruz beharrezkoa den informazioa eta azterketa materiala egiteko baimena eman dezaten.

40. artikulua. Merkataritza

1. Kultur ondarearen parte diren ondasunen merkataritzan aritzen ohi diren pertsonak eta entitateak Nafarroako Gobernuak legeztaturiko liburu-erregistro bat eramanen dute, eta bertan agerraziko dituzte 39.1 artikulua aipatzen dituen ondasunen gaineko transakzioak. Transakzio bakoitzeko objektua eta zatiak identifikatzeko datuak adierazi beharko dira erregistro-liburuan.

2. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak 1. idatz-zatiak aipatzen dituen objektuen salerosketan aritzen ohi diren enpresen erregistro bat eramanen du. Enpresa horiek erregistroan inskribatu beharko dira aritu ahal izateko, erregelamendu bidez ezarritako baldintzekin.

41. artikulua. Erreproduzioa eta zaharberritzea

"Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako administrazio publikoek kultur ondarearen parte diren ondasun higigarriak, bereziki ondare dokumental eta bibliografikoan sartutakoak, erreproduzitzeko bitarteko teknikoak erabilera sustatuko dute, kontserbazioak hala eskatzen badu. Halaber, funts hondatuak edo hondatzeko arriskuan daudenak zaharberritzeko behar diren jarduketak gauzatuko dituzte.

Bigarren atala**Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun higigarriei eta ondasun higigarri katalogatuei aplikatu beharreko araubidea****42. artikulua.** Kontserbazioa

1. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higigarrien eta ondasun higigarri katalogatuen gaineko aldaketa, konponketa, zaharberritze edo beste mota bateko jarduketa orok, 28. artikulua arauturiko jarduketan programan aurreikusirikoen artekoa ez bada, Nafarroako Gobernuaren aurretiko onepena jaso beharko du, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak txosten loteslea eman ondoren.

2. Kokalekuaren baldintzek Foru Komunitatearen intereseko ondasun higigarrien edo ondasun higigarri katalogatuen kontserbazioa arriskuan jarri ahal badute, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak, ukitutako udalak txostena eman ondoren, erabaki ahalko du horiek behin-behineko gordetzea segurtasun eta kontserbaziorako baldintza egokiak betetzen dituen toki batean, ondasunaren jatorrizko kokalekutik ahalik eta gertuen dagoen toki batean, hain zuzen. Era berean, ondasunak behin-behineko gordetzeko erabakia hartuko du titularrek horiek kontserbatzeko beharrik ez diren baldintzekin.

43. artikulua. Leku aldatzeak jakinaraztea

Foru Komunitatearen intereseko ondasun higigarriak edo ondasun katalogatuak lekuz aldatuz gero, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren jakinaraziko zaio, kasuan kasuko erregistroan edo katalogoan agerraz dezan. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak berehalako-

an emanen die Nafarroako Gobernuari eta dago-kion udalari leku-aldatzearen berri.

44. artikulua. Bildumen osotasuna

1. Foru Komunitatearen intereseko bildumak zein katalogaturikoak, bildumak ondasun horien berezko balioak osotasunean baizik biltzen ez dituen kasuan, ezin dituzte sakabanatu titularrek edo edukitzaileek "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren baimenik gabe.

2. Higiezin bati loturik egoteagatik Foru Komunitatearen intereseko ondasun higigarriaren deklarazioa jaso duten horiek ezin dira higiezinetik bereizi "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren baimenik gabe.

3. Bildumak sakabanatu eta higiezinetik ondasun higigarriak bereziz gero, horren berri emanen zaie ukitutako udalei.

IV.KAPITULUA

Ondare arkeologikoa babesteko arau bereziak

45. artikulua. Ondare arkeologikoaren kontzeptua eta babes araubideak

1. Metodologia arkeologikoaz baliatuz aztertu beharreko ondasun higigarri eta higiezin historikoak dira Nafarroako ondare arkeologikoa osatzen dutenak. Halaber, ondare horren parte dira giza-kiarekin eta haren jatorri eta aurrekariarekin zerikusia duten elementu geologiko eta paleontologikoak.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen ondasunen babesa Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun direla deklaratzuz edo katalogatuz ezartzen da eta, era guztietara, kapitulu honen arau bereziak aplikatuz.

3. Ingurumenaren gaineko eragina aztertzeo prozedura bete behar duten eta ondare arkeologikoaren parte diren ondasunak ukitzen dituzten obra, instalazio edo jardueren proiektuak tramitazterakoan txostena eskatuko zaio "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari.

46. artikulua. Mantentzea eta kontserbazioa

Ondare arkeologikoaren babesa zuzenduko duen printzipioa "in situ" kontserbatzea izanen da. Ondare hori jatorrizko testuinguruan kontserbatu beharko da, eta horretarako kontserbazio, kudeaketa eta mantentze egokiak ezarriko dira.

2. Ondare arkeologikoa ezin izanen da indusketak dakartzan arriskuen eta ondorioen menpe egon eta hura egin ondoren ez da bertan utziko mantentze eta kontserbazio egokiak ziurtatuko dituen finantzazioa alde aurretik bermatu gabe.

47. artikulua. Esku-hartze arkeologikoetarako baimena

1. Nafarroako lurraldean esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoak gauzatzeko beharrezkoa izanen da "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak baimena ematea aurretik, hirigintzaren arloko legeriaren arabera aginduzkoa den udal lizentzia eskuratu beharra kendu gabe.

2. Esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoak dira aztarna arkeologiko edo paleontologikoak aurkitu, dokumentatu edo ikertzeko xedearekin eginiko prospekzioak, zundaketak, indusketak, kontrolak eta beste edozein motatako esku-hartzeak, lur mugimenduak eraginda zein ez. Esku-hartzearen aurretik aztarnategiaren balizko balioari buruzko balorazio zientifikoa egin beharko da. Bestalde, esku-hartzea mugatu egin beharko da, aurrerago ikerlanak egin ahal izateko sektore bat ukitu gabe utzirik.

3. 1. idatz-zatiak aipatzen duen baimena emateko beharrezkoa da eskaerarekin batera proiektu bat aurkeztea, esku-hartzearen komenigarritasuna eta interes zientifikoa frogatu, zuzendarien egokitasun tekniko eta zientifikoa bermatu eta sustatzaileen ahalmen ekonomikoa ziurtatuko duena.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira esku-hartze arkeologikoen mota desberdinak, horien irispenna, eskaeretan bete beharreko baldintzak, zuzendarien titulazioa eta gaitasun teknikoa, baita baimenak bete beharreko baldintzak ere.

48. artikulua. Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinetakako obrek eragindako esku-hartzeak.

1. Eremu arkeologiko edo paleontologiko bat edo Foru Komunitatearen intereseko bestelako kultur ondasun higigarriaren batean eragina duen edozein lan gauzatzeko "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak esku-hartze arkeologikoa beharrezkoa dela erabakiz gero, esku-hartze hori "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko langileek zuzenduko dute.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen duen obraren sustatzailea partikular bat denean, administrazioak parte hartu ahalko du proiektu arkeologikoaren exekuzioak duen kostua finantzatzen.

49. artikulua. Babes arkeologikoko guneak

1. Babes arkeologikoko guneak dira Foru Komunitatearen intereseko ondasunaren deklarazioa jaso ez dutenak baina aztarna arkeologiko edo paleontologikoak ustez gorde ditzaketanak,

ebidentzia materialek, aurrekari historikoek edo bestelako zantzuek hala pentsarazten dutelako.

2. Babes arkeologikoko guneak "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko Zuzendaritza Kontseiluak ezarriko ditu, interesatuei eta ukitutako udalari entzun ondoren. Udalari eta interesatuei ebazpena jakinaraziko zaie eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

3. Babes arkeologikoko guneetan dauden orube edo eraikinetan lanak eta bestelako esku-hartzeak sustatzen dituztenek obra edo proiektu horiek aztarna arkeologikoetan izan dezaketen eraginaren gaineko azterlana egiteko eskaera bat aurkeztu beharko dute, obra lizentziarako eskabidearekin batera. Azterlan hori "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko langileek egin beharko dute, eta zentroak luzatuko du behin betiko txosten loteslea proiekturako obra lizentzia emateari edo behin betiko exekuzioari buruzkoa.

50. artikulua. Administrazioaren esku-hartze arkeologikoak

"Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak zuzenean gauzatuko ditu egokitzen jotzen dituen esku-hartze arkeologikoak. Toki korporazioek ere hala egin dezakete bere eskumenen esparruan, betiere berme zientifiko eta tekniko egokiekin eta "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak baimena eman ondoren, 47. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Jarduketa horietarako abiapuntua izanen da partikularrei eragindako kalteak ahal diren arinenak izatea. Kalte-ordainak bidezkoak izatekotan, nahitaezko desjabetzearen inguruko legeriak ezarritakoari lotuko zaizkio.

51. artikulua. Aztarna arkeologikoen aurkikuntza

1. Balio arkeologikoa duten aztarnen halabeharrezko aurkikuntzak edo esku-hartze arkeologiko baten ondorioz eginiko aurkikuntza bereziak berrogeita zortzi orduko epean jakinarazi beharko zaizkio "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari edo kasuan kasuko udalari, eta ez dira inola ere argitara emanen administrazio horiek jakinaren gainean jarri aurretik. Izaera berezia ez duten eta esku-hartze arkeologikoen ondorio ez diren aurkikuntzak jakinarazteko epeak erregulamentu bidez ezarriko dira.

2. Aztarna arkeologikoen aurkikuntzaren berri jaso duen udalak "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari jakinaraziko dio astebeteko epean. Bere aldetik, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak aurkikuntzen berri izanez

gero dagokion udalari jakinaraziko dizkio eta halaber aurkikuntza egin den lekuaren jabeari.

3. Aztarna arkeologikoak aurkitzen dituenak berrogeita zortzi orduko epean entregatuko du ondasuna udalean, Nafarroako museo publiko batean edo "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroan, non ez den beharrezkoa lurrag mugitzea ondasuna ateratzeko, haren ezaugarriak direla-eta, kasu horretan objektua jatorrizko kokalekutik ez baita mugituko. Esku-hartze arkeologikoen ondorioz eginiko aurkikuntzetan, berriz, erregulamentu bidez ezarriko da entrega nola egin. Kasu guztietan, ondasuna aurkitu duenak entrega egin arte lege gordailuaren gaineko arauak aplikatuko zaizkio.

4. Aztarna arkeologikoak aurkitzen dituenak eta aurkikuntza egin deneko tokiaren jabeak bidezko izan ditzaketen eskubide ekonomikoak araudi indardunak zuzenduko ditu. Foru administrazioak ordaindu beharko ditu eskubide horiek, horrek beste administrazio publiko batzuekin akordioz izenpetu ez baditu behintzat.

5. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren zeregina da zehaztea non gorde behin betikoz aurkituriko aztarna arkeologikoak, kontuan harturik zenbait irizpide, batik bat aurkikuntzaren tokiarekiko hurbiltasuna eta ondasunen kontserbaziorako eta segurtasunerako baldintzen egokitasuna, eta alde batera utzi gabe museo antolamendu orokorraren premietatik etor daitezkeen beste irizpide batzuen aplikazioa.

52. artikulua. Obrak etetea

1. Obra bat egiten ari dela, edozein izanik ere haren titularra, balio arkeologikoko aztarnak edo objektuak aurkituz gero, obraren sustatzaileak edo zuzendaritza fakultatiboak berehala geldiaraziko ditu lanak, aztarnak babesteko behar diren neurriak hartuko ditu eta aurkikuntzaren berri emanen dio "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari berrogeita zortzi orduko epean, horrek kasuan kasuko udalari jakinaraz diezaion.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen duen jakinarazpenetik hogeita hamar eguneko epean, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak egiaztapenak gauzatuko ditu zehazteko aurkikuntzen interesa eta balio arkeologikoa; obraren sustatzaileak ere parte hartuko du horretan, bertan dauzkan bitartekoak erabiliz.

3. 2. idatz-zatiak aipatzen dituen lanen eteteak ez du kalte-ordainik ekarriko. Nolanahi ere, administrazioak etenaren epea luzatu ahalko du hala egitea beharrezkoa izanez gero ikerketa arkeologikoa osatzeko, eta kasu horretan, sustapen pri-

batuko obra denean administrazio publikoen erantzukizunaren gaineko arau orokorrak aplikatuko dira eta ez da aplikatuko 23.1 artikulua ezarritako bi hilabeteko epea.

53. artikulua. Aurkikuntzen titularitatea

Indardun araudiaren arabera jabari publikoaren izaera duten ondasunak, Nafarroan aurkitutakoak, Nafarroako Foru Komunitatearen ondarean sartuko dira. Halere, araudi indardunak aipatzen dituen eskubide ekonomikoak beste administrazio publiko batek ordaintzen baditu, ondasunak administrazio horren ondarean sartuko dira.

III. TITULUA

“Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroa

LEHEN KAPITULUA

Sorrera, kideak eta eginkizunak

54. artikulua. “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroaren sorrera

1. “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroa sortuko da, Nafarroako kultur ondarearen kontserbazioaren alde beharrezkoak diren jarduketak bermatu eta sustatzeko ardura izanen duen organo independente gisa.

55. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa

1. “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroa zuzenbide publikoko ente bat da, eta nortasun juridiko berekia, Administrazio Publikoekiko independentzia, erabateko gaitasuna eta bere eginkizunak betetzeko autonomia organiko eta funtzionala ditu.

Foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako lege xedapenetan ezarriko dagoena hartzen du araubide, bai eta haren estatutu organiko eta funtzionamendukoa ere.

56. artikulua. Jardute eremua eta egoitza

Nafarroako “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroak foru lege honen aplikazio esparruaren barrenean beteko ditu bere eginkizunak.

Nafarroako “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroak Iruñean du egoitza.

57. artikulua. Kideak

1. “Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroaren organo gorena zuzendaritza kontseilua izanen da eta aholkularitza eta kontsulta organoa, berriz, gizarte kontseilua.

2. Zuzendaritza kontseiluak bederatzikide izanen ditu, horietatik sei Nafarroako Parlamentuak bere kideen bi herenek osaturiko gehiengoaren

bidez hautatuak, bi Nafarroako Gobernuak hautatuak eta beste bat Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hautatua, guztiak gai honetan merezimendu profesional nabarmenak dituzten pertsonen artean aukeratuak.

3. Parlamentuko taldeek izendaturiko izangaiak, Biltzarreko Osoko Bilkurak hautatu baino lehen, dagokion batzordean agertuko dira, erregelamenduan ezarritako moduan, parlamentariak haien merezimendu profesionalen berri izan dezaten.

4. Zuzendaritza Kontseiluko burua kontseiluko kideen artean hautatuko da, bi herenen aldeko botoarekin, Zuzendaritza Kontseilua eratzeko bilkuran; bilkura horretan kontseiluko kide zaharrena arituko da buru. Kontseiluko burua, horrela hautaturikoa, Nafarroako Gobernuako Lehendakariak izendatuko du.

5. Gizarte Kontseiluko kideak Nafarroako kulturaren esparruko pertsona entzutetsuak izanen dira. Estatutuaren bidez zehaztuko da kideen kopurua, ordezkaritza izanen duten sektoreak eta bileren maiztasuna. Eginkizunetako bat Zuzendaritza Kontseiluaren jarduketetarako informazioa eta aholkua ematea izanen da, estatutuak ezarriko duen moduan.

58. artikulua. Eginkizunak

“Vianako Printzea” Kultur Ondarearen Zentroaren eginkizunak hauexek dira:

a) Nafarroako kultur ondarearen defentsan eta babesean aritzea eta foru lege honetan ezarritakoa zorrotz betetzen dela zaintzea.

b) Babesturiko ondasunen deklarazio espedienteak ireki eta ebatzea.

c) Nafarroako kultur ondarean esku hartzeko baimenak, foru lege honetan ezarritakoak, ematea.

d) Foru lege honek ezartzen dituen txostenak ematea.

e) Foru lege honetan ezarritako erregistroak eta katalogoak sortu, antolatu eta mantentzea.

f) Nafarroako kultur ondarearen zabalkundea eta haren gaineko ikerlanak sustatzea.

g) Kultur ondarearen inguruan herritar guztiei informazioa ematea eta egiten diren kontsultei erantzutea.

h) Lege honen helburuak ahal den hobeki betetzeko behar diren araudi aldaketak eta jarduketak publiko zein pribatuak sustatzea eta adminis-

trazio eskudunek proposatzen dituzten araudi aldaketan gaineko txostenak egitea.

- i) Foru lege honetan ageri diren beste guztiak.

BIGARREN KAPITULUA

Giza baliabideak

59. artikulua. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko langileak

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak foru lege honek haren esku utzitako zereginak betetzeko behar dituen langileak izanen ditu.

2. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroko langileei administrazio publikoen zerbitzuko langileen araubide juridikoa aplikatuko zaie.

II. KAPITULUA

Gauza baliabideak

60. artikulua. Aurrekontua eta zuzkidura

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak bere aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du, eta bertan aurreikusiko foru lege honek haren esku utzitako zereginak bete eta gauzatzeko behar duen zuzkidura.

2. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroaren zuzkidura Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren aurrekontuko programetako bat izanen da.

3. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroa kontabilitaterako, kontu-hartzailetzarako, gas-tuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko administrazio publikoek horretarako duten araubide beraren mende an egonen da.

IV. TITULUA

Sustapen eta zabalkunderako neurriak

LEHEN KAPITULUA

Sustapena

61. artikulua. Arau orokorrak

1. Administrazio publikoek publikotasun, konkurrentzia eta objektibotasun printzipioetan oinarriturik eta aurrekontuko aurreikuspenen barrenean emanen dituzte laguntzak kultur ondarea osatzen duten ondasunak ikertu, dokumentatu, kontserbatu, berreskuratu, zaharberritu eta zabaltzeko.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren sustapen neurriak ematean, bermeak ezarriko dira laguntza publikoetz baliatuz eskuratu, kontserbatu, zahar-

berritu edo hobetzen diren ondasunekin espekulaziorik gerta ez dadin.

3. Lege honek ezartzen duen kontserbatzeko beharkizuna betetzen ez duten pertsonak eta entitateak ezin izanen dira sustapen neurrien onuradun izan.

4. Nafarroako Gobernuak bultzatu dezake entitate pribatuen eta partikularren parte hartzea kapitulu honek aipatzen dituen sustapen jarduketaren horien finantzazioan.

62. artikulua. Ikertu, kontserbatu eta eraberritzeko laguntzak

1. Nafarroako Gobernuak, urtero, kultur ondarea ikertu, dokumentatu, kontserbatu, berreskuratu, zaharberritu eta hobetzeko inbertsio eta laguntza programa bat ezarriko du, behar diren aurrekontu zuzkidurekin.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen laguntza horietako bat eman eta zortzi urteko epean administrazioak ondasuna erosiz gero, erosteko prezioari zati bat kenduko zaio, laguntzaren edo laguntzen hainbatekoa, konturako ordainketa gisa hartuko baita.

3. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan kontserbazio, mantentze, eraberritze eta indusketa lanak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak kreditu ofiziala eskuratzeko aukera sustatuko du.

63. artikulua. Erosteko laguntzak

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu, Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak eta katalogaturiko kultur ondasunak haien babesaren bermatzen duen erabilera orokorra emateko helburuarekin erosteko finantziarioak lehentasuna izan dezan kreditu ofiziala jasotzeko garaian, hura erregulatzen duten arauetan ezarritako moduan eta baldintzekin.

64. artikulua. Kulturarako 100eko 1a

1. Nafarroako Gobernuak osotara edo zati batean finantzatzen dituen herrilaren aurrekontuetan ekarpenaren 100eko 1eko gutxieneko kontu-sail bat erreserbatuko du lege honek babes-uriko ondasunen kontserbazioan, zaharberritzean, indusketan eta erosketan eta arte sorkuntza garaikidean inbertitzeko.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen duen erreserba aplikatuko zaio, halaber, partikularrek, Nafarroako Gobernuaren administrazio emakidaren medioz egiten dituzten herrilaren exekuzioaren aurrekontuari.

3. 1 eta 2. idatz-zatiek zehazturiko neurri horietatik kanpo daude honako herrilan hauek:

a) Nafarroako Gobernuaren edo emakida hartzailearen ekarpena ehun milioi pezetakoa baina txikiagoa denean.

b) Lege honen helburuak betetzeko soilik egiten direnak.

c) Funts finalistzen transferentzien kargura finantzatzen direnak osotara.

4. 3. idatz-zatiko a) letran xedatuaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartzen unitate gisa edo osotara har daitekeen obra baten kontratazioan egin litezkeen zatiketak.

5. 50.2 eta 51.3 artikuluek aipatzen dituzten esku-hartze arkeologikoen kostuak 100eko 1en ekarpenzat hartuko dira.

6. Artikulu honi jarraikiz lortutako funtsak aplikatzeko irizpideak eta modua erregelamendu bidez ezarriko dira. Nolanahi ere, lehentasunezkoak izanen dira kasuan kasuko herrilanak zuzenean ukitu ditzakeen kultur ondasunak eta ingurunean kokaturik daudenak. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak txosten bat egingen du funtsak aplikatu aurretik.

7. Obrak kontratatuzeko espedienteetan frogatu beharko da behar besteko kreditua badela artikulu honek ezartzen duen erreserba beharkizuna betetzeko.

65. artikulua. Kultur ondasunetan ordaintzea

Kultur ondarearen parte diren ondasunen jabeek foru administrazioari eta toki administrazioari eskatu ahalko diete ondasun horien jabetza lagatzea onar dezan haien zorrak kitatzeko. Lagapena onartzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio, Kultura Departamentuaren aurretiazko txostenarekin, eta tokian tokiko udalaren osoko bilkurari.

II. KAPITULUA **Zabalkundea**

66. artikulua. Nafarroako kultur ondarearen inbentarioa

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak Nafarroako kultur ondarearen inbentarioa prestatu eta mantenduko du. Inbentario horren xedea da hura osatzen duten ondasun guztien dokumentazioa eta bilketa sistematikoa, ikerketa eta zabalkundea gauzatzeko aukera ematea.

2. Nafarroako kultur ondarearen inbentarioan adierazitako datuak jendaurrekoak dira. Salbuespen gisa, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen

Zentroak ebazpena eman dezake ondasunen egoera juridikoa, kokapena eta balioari buruzko datuak jendeak kontsultatzeko aukeratik kanpo uzteko.

3. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak bermatuko die herritarrei Nafarroako kultur ondarearen inbentarioan sarturik dauden datuak eskura izatea, datuak transmititzeko sare deszentralizatu bat ezarriz.

4. Funtsetako datu dokumentalak informatizatu dituzten museoek, liburutegiekin, artxiboekin eta kultur gordailurako gainerako zentroekin ziurtatu eta erraztuko dute Nafarroako kultur ondarearen inbentarioarentzako informazio ematea bideragarria izatea, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak zehaztuko dituen euskarrian eta formatuan.

67. artikulua. Jendearen bisitak eta zabalkundea

1. Foru administrazioaren ardura izanen da jendeak Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak bisita egitean ondasunen kontserbazio, ezagutza eta zabalkunderako baldintzak, bai eta bisitarien segurtasunekoak ere, egokiak izan daitezen.

2. Foru administrazioak sustatuko du Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erreproduktzio eta kopiak egitea helburu didaktikoekin eta turismoa sustatzeko, eta horietan ikusteko moduan agerraraziko du jatorria eta kopia direla, jabetza intelektualearen gaineko eskubidea ezertan ukatu gabe.

3. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak Nafarroako kultur ondarearen erabilera eta gozamena bultzatuko ditu, gizartea eta turismoa dinamizatzeko faktore den aldetik, eta betiere ondasunen eta haien ingurunearen kontserbazioa eta babes premiak, lege honek ezarritakoak, aintzat harturik.

68. artikulua. Monumentuen kudeaketa Nafarroako Gobernuaren eskutik

1. Jendearen bisita jaso dezaketen eta Nafarroako Gobernuak administratzen dituen monumentuak eta aztarnategi arkeologikoak deskontzentrazioaren eta partaidetzaren printzipioei jarraikiz kudeatuko dira, horien guztien koherentzia bermatuko dituzten jarraibide komunak aplikatzeko aukera kendu gabe.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen monumentuen eta aztarnategien kudeaketak horien mantentzea eta kontserbazioa bermatuko ditu eta horien zabalkundea sustatuko du, eta horretarako

behar beste elementu izanen du seinaleztapen, gida eta zerbitzu osagarrien arloan.

3. Nafarroako Gobernuak patronatuak era ditzake, Nafarroako Gobernuaren eta bestelako erakundeen ordezkariak, eta kasuan kasuko monumentuekin zerikusia duten entitateak eta pertsonak horien kide direla, monumentuen kudeaketan eta horietan gauzatzen diren jardueretan lagundu, aholkuak eman eta parte har dezaten. Udalek eta "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak ere ordezkariak izanen dute patronatu horietan.

4. Nafarroako Gobernuak ezarri ahalko du hark kudeaturiko zenbait monumentu, aztarnategi arkeologiko edo museo autonomia ekonomikoaren araubidean administratzea, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan. Urtero, araubide horri loturiko monumentu, aztarnategi edo museo-en kudeaketaren arduradunek Nafarroako Gobernuari aurkeztu beharko dizkiote diru-sarreraren justifikazioa eta kudeaketa ekonomikoaren kontua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eskura eta, bidezkoa bada, Kontuen Ganbararen eskura ere gera daitezten.

69. artikulua. Irakaskuntza

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako kultur ondorearen gaineko ezagutza txertatuko du derrigorrezko hezkuntza sistema arautuaren maila desberdinetako curriculumetan.

2. Nafarroako Gobernuak kultur ondarearen kontserbazioan eta mantentzean espezializaturiko irakaskuntzen garapena bultzatuko du, eta lankidetzaren hitzarmenak izenpetu ahalko ditu entitate pribatuekin eta prestakuntzako ikastetxe espezializatuekin.

3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua arduratuko da kultur ondarearen administrazioan edo zaintzan aritzen diren funtzionarioek prestakuntza berriazko egokia izan dezaten.

70. artikulua. Argitalpenak

Nafarroako Gobernuak administrazioak Nafarroako kultur ondarearen ikerketa eta zabalkundearako argitalpenak sustatuko ditu.

V. TITULUA

Foru Legea betearaztea eta zehapen araubidea

LEHEN KAPITULUA

Foru Lege hau betearazteko neurriak

71. artikulua. Kontserbazio beharra betetzea

1. Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen edo katalogaturiko ondasun higigarrien kontserbazio beharra betetzen ez bada, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak ondasun horien gaineko eskubide errealeen jabeen, edukitzaileen eta titularrei agindu ahalko die obrak bete edo ondasunak babestu, kontserbatu eta mantentzeko behar diren jarduketak egin ditzaten. Neurri horiek udalek ere hartu ahal izanen dituzte katalogaturiko ondasun higiezin kasuan. Administrazioak ezin izanen du obrak edo jarduketak betetzeko agindu, horien zenbatekoa, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriak ezartzen dituen irizpideak aplikatuz Nafarroako Gobernuak edo udalak finkatua, ondasunaren balioaren 100eko 50etik gorakoa bada.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen jarduketak betetzen ez badituzte horretara beharturik daudenean, Nafarroako Gobernuak, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak eskatuta, edo, bidezkoa bada, tokian tokiko udalak hartu ahal dute bere gain horien exekuzio subsidiarioa, horretara beharturik daudenen kargura. Higiezinak arriskua hurbil badu, berriz, administrazio eskudunak ondasuna babesteko ezinbestekoak diren neurriak aurretik errekerimendurik egin beharrik gabe betearazi ahalko ditu.

3. Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen kontserbazio lanak gauzatzeko, itzuli beharreko aurrerakin gisako laguntza bat eman ahalko du, zeina ondasun higiezin kasuan Jabetzaren Erregistroan inskribatuko baita.

4. Desjabetzearen ondorioetarako, gizartearen intereseko arrazoiak dira lege honek ezarritako beharkizunak –kontserbatu, zaindu, mantendu eta babestekoak– ez betetzea eta Foru Komunitatearen intereseko higiezin bat edukitzea arrisku edo aurri egoeran hurbil duela. Desjabetzeko eskumena foru administrazioarena eta udalena da, zein bere eskuduntzen esparruan.

72. artikulua. Eragindako kalteak konpontzea

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan edo katalogaturiko ondasun higigarrietan legez kanpo eragindako kalteak konpontzeko agindua emanen die horren erantzule diren pertsona edo erakundeei ondasuna konpondu, lehengoratu, berregin edo eraisteko aginduen bidez edo ondasun lehen zegoen bezala uzteko behar direnen bidez, eta horrek ez du alde batera utziko dagokion zehapena ezarri ahal izatea. Aipatutako neurriak, katalogaturiko ondasun higiezinetan eragindako kalteen kasuan, udalak hartuko dituzte.

73. artikulua. Hertsatzeko isuna

1. Eskudun administrazioak, bere kabuz edo "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak eginiko salaketa baten kariaz, hertsatzeko isunak ezarri ahalko ditu lege honek agindutako beharkizunak eta legeak xedatzen duena betetzeko emandako administrazio ebazpenak betearazteko.

2. Hertsapen isunak ezartzeko beharrezkoa da aurretik idatzizko errekerimendua egitea; hartan adieraziko da beharkizuna betetzeko zein epe dagoen eta ezarri daitekeen isunaren zenbatekoa. Nolanahi ere, epea beharkizuna bete ahal izateko behar adinako izanen da eta isuna ez da 600 eurotik gorakoa izanen.

3. Behin hertsapen isuna ezarri hura eragin duen ez betetzeak iraunez gero, administrazioak behar beste aldiz ezarri ahalko du berriz beharkizuna betetzen ez den bitartean, baina epea ez da inola ere izanen lehendabiziko errekerimenduan finkaturikoa baino laburragoa.

4. Hertsapen isunek ez dute loturarik zehapen gisa ezar daitezkeenekin, eta batzuk eta besteak bateragarriak dira.

74. artikulua. Ikuskaritza

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak edozein unetan ikuskatu ditzake Nafarroako kultur ondarearen parte diren ondasunetan egindako lanak eta esku-hartzeak. Ondasun horien jabeek, edukitzaileak eta titularrek ez dute horietara sartzeko trazarik jarriko ikuskaritzarako beharrezkoa denean.

2. Kultur ondarearen gaineko kontrola eta ikuskaritza lana bere gain duten langileak agintadunak dira eta ahalmena dute ondasunak, liburuak, agiriak eta, oro har, haien zereginak betetzeko informazio gisa erabil daitezkeen guztia aztertzeke.

II. KAPITULUA

Zehapen araubidea

75. artikulua. Arau-hausteen sailkapena

1. Lege honek ezarritako beharkizunak ez betetzea administrazio arau-haustea da, delitua ez bada. Lege honen kontrako arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2. Arau-hauste arinak.

a) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunen erregistroari edo Nafarroako kultur ondarearen katalogoari horietan inskribaturiko ondasunetan eragina duten egintza juridiko zein teknikoaren eta leku aldaketan berri ez ematea.

b) Eskudun erakundeari ez jakinaraztea, 25. artikulua ezarritako moduan, interes nazionalako kultur ondasunen edo katalogaturiko ondasunen jabetzaren edo horien gaineko edozein eskubide errearen kostu bidezko esku-aldaketa.

c) Espezialistei katalogaturiko ondasunetara sartzeko trazarik ez jartzeko beharkizuna ez betetzea.

d) Nafarroako kultur ondarearen parte diren ondasunen existentziaz eta erabileraz erakunde eskudunei informazioa emateko beharkizuna ez betetzea eta administrazio eskudunen ikuskaritza eragozteak.

e) Ondasuna kontserbatzeko lanak zehaztuko dituen programa bat "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak onetsi dezan ez aurkeztea.

f) Kultur ondarearen parte diren ondasunen merkataritzan aritzen direnek ez betetzea 40.2 artikuluan ezarritako beharkizunak.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Erakunde eskudunari ez jakinaraztea kultur ondarearen parte diren ondasunetan eragina duten enkanteak.

b) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetara ikertzaileak eta bisitariak sartzen uzteko beharkizuna ez betetzea.

c) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak edo katalogaturiko ondasunak babes- eta mantentzeko beharkizunak ez betetzea.

d) Eskualdaketen erregistro-liburua eramateko beharkizuna ez betetzea edo bertan agerrarazi beharreko datuak ez adieraztea edo zehaztasunez ez adieraztea.

e) Behar den baimena izan gabe sakabana- ztea Foru Komunitatearen intereseko kultur bilduren deklarazioa dutenak edo katalogaturikoak, eta Foru Komunitatearen intereseko ondasun higiezinari loturiko ondasun higigarriak haietatik bereiztea.

f) Aztarna arkeologikoak aurkituz gero, horien berri eman eta aurkitutako ondasunak entregatzeko beharkizunak ez betetzea.

g) Aztarna arkeologikoak aurkituz gero obrak eteteko beharkizuna ez betetzea, eta administrazio eskudunak obrak etetea erabakiz gero hala ez egitea ere.

h) Udalek obra lizentziak ematea eta kautelazko neurriak hartzea 33. artikuluan xedatutakoa urratuz.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Foru Komunitatearen intereseko ondasun deklaraturiko higiezinak eraistea osorik zein zati batean.

b) Foru Komunitatearen intereseko ondasun higigarriak edo katalogaturiko ondasunak suntsitzea.

c) Udalek higiezinak tokiz mugitzeko lizentziak ematea, 36. artikuluan xedatutakoa urratuz.

5. Honako hauek arau-hauste arinak, larriak edo oso larriak dira kultur ondareari ekarri dioten edo ekar diezaiokkeen kaltearen arabera:

a) »Esku-hartze arkeologikoak egitea behar den baimena izan gabe.

b) «b) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan eta babes arkeologikoko guneetan esku-hartzeak egitea hirigintzako lizentziarik gabe edo lizentziaren baldintzak bete gabe.

c) Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan eta katalogaturiko ondasunetan eginitako jarduketak eta esku-hartzeak, dagokion agintedunak onetsiak ez badira.

d) Monumentu baten erabilera aldatzea baime-nik gabe, edo deklarazioarekin bateragarriak ez diren erabilerei eustea.

76. artikulua. Erantzukizuna

1. Lege honen kontrako arau-hausteen erantzule, zuzeneko erantzukizuna dutenez gain, honako hauek ere badira:

a) Sustatzaileak, obrak egiteagatik.

b) Obretako zuzendaria, obrak eteteko agintua ez betetzeagatik.

c) Zigor Kodeari jarraikiz, egile, konplize edo estalgile direnak, baimenik gabeko esku-hartze arkeologikoak egiteagatik.

2. Lege honen kontrako arau-hausteen erantzule dira, halaber, legeak ezartzen dituen behar-kizunak ez betetzeaz jakitun izan arren, horietatik onura lortzen dutenak.

77. artikulua. Arau-hausteen sailkapena

1. Kultur ondarearen arloko administrazio arau-hausteeak, kultur ondareari eragindako kaltearen balorazio ekonomikoa egiterik dagoen kasuan, jaso dezaketen isuna kalte horien balioaren lau halakora bitartekoa izanen da. Bestela honako zehapen hauek aplikatuko dira:

a) Arau-hauste arinetan, 6000 euroko isuna, gehienez ere.

b) Arau-hauste larrietan, 6000 eurotik 250.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larrietan, 250.000 eurotik 1.000.000 eurora bitarteko isuna.

2. 1. idatz-zatiak finkaturiko zehapenen zenbatekoa honen arabera mailakatuko da:

a) Berrerortzea.

b) Kultur ondareari eginiko kaltea.

c) Legez kanpoko esku-hartze arkeologikoetan baliabide teknikoak erabili izana.

3. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez gaurkotuko du 70 eta 74. artikuluetan finkatzen diren isunen zenbatekoa, kontsumoko prezioen indizearen gehikuntzarekin bat.

78. artikulua. Material eta lanabesen konfiskazioa

Zehapena ezartzeko eskumena duen organoak erabaki dezake, zehapen osagarri gisa, lege kanpoko jardueran erabilitako materialak eta lanabesak konfiskatzea.

79. artikulua. Organo eskudunak

1. Udalena da 75. artikuluko 2.b), 2.c), 3.b) eta 5.c) idatz-zatietan aipatzen den arau-hausteari zehapena ezartzeko eskumena, toki intereseko kultur ondasunen kasuan.

2. Toki entitateena da 75. artikuluko 2.d) eta 75. artikuluko 3.g) idatz-zatietan aipatzen diren arau-hausteei zehapena ezartzeko eskumena, entitate horien jarduketan inguruan eginak badira.

3. Udalena da 75. artikuluko 5.b) idatz-zatian aipatzen diren arau-hausteak direla-eta zehapen espedienteak ireki eta tramitatzeko eskumena. Kasu horietan, lege honek araututako zehapen araubidea hirigintzaren arloko araudiak ezarritako araubideari nagusitzen zaio.

4. 75.5.b) artikulua kontrako arau-hausteak direla-eta ezarri beharreko zehapenen eskumena honako hauena da:

a) Alkatearena, 6.000 euroko gehieneko zehapenak direnean, bost milatik berrogeita hamar mila biztanlera bitarteko udalen kasuan edo, gehienez 250.000 euroko zehapenak direnean, berrogeita hamar mila biztanletik gorako udalen kasuan.

b) Kultur kontseilariarena, 6.000 eurotik 250.000 eurora bitarteko zehapenak direnean, gehienez berrogeita hamar mila biztanleko udalen kasuan.

c) Nafarroako Gobernuarena, 250.000 eurotik gorako zehapenak direnean.

5. Kultur Departamentuak toki entitate eskudunari jakinarazten badio 75.5.b) artikuluan tipifikaturiko arau-hausteetako baten zantzuak daudela eta toki entitateak jakinarazten ez badio bi hilabeteke epean zehapen espedienteak ireki izana, Kultura Departamentuak zehapen espedienteak ireki, tramitatu eta ebatzi dezake.

6. 75. artikuluan tipifikaturiko arau-haustean, artikuluko honen 1, 2 eta 3. idatz-zatietan ageri direnez besteetan, Kultura Departamentuko zuzendari nagusiaren eskumena da zehapen espedienteak irekitzea, gaia dela-eta, eta zehapenak ezartzea, berriz, Kultura kontseilariarena da, gehienez 250.000 euroko zehapenak direnean, eta Nafarroako Gobernuarena 250.000 eurotik gorako zehapenak direnean.

80. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa

Lege honek aipatzen dituen administrazioari arau-hausteak egin eta bost urtera preskribitzen dute, salbu eta oso larriak, hamar urtera preskribitzen baitute.

81. artikulua. Kautelazko neurriak

1. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetan edo katalogaturiko ondasunetan egiten ari den edozein obra edo jarduketaren eten egiten du, kultur ondarearen gaineko legeriak ezartzen duena urratzen badu; eta obrak eteteko agindua emanen du, halaber, aztarna arkeologikoak aurkituz gero, sustatzaileak 52. artikuluan ezarritako beharkizuna ez badu bete.

2. 1. idatz-zatiak aipatzen dituen etenak udalek ere erabaki ahal dituzte udal lizentzia behar duten obra edo jarduketak direnean. Etenak Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasun batean eragiten badu, "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroari jakinarazi beharko zaio berrogeita zortzi orduko epean.

3. Arau-hauste larri edo oso larri bat egin delako zantzuak daudenean, zehapena ezartzeko eskumena duen erakundeak erabaki dezake, kautelazko neurri gisa, zehapen espedientearen instrukzioaren aurretik edo batera, jarduera horietan erabilitako materialak ibilgetu, prezintatu edo gordailuan hartzea.

4. "Vianako Printzea" Kultur Ondarearen Zentroak erabaki dezake kautelaz gordailuan hartzea kultur ondarearen parte diren ondasunak, horien salerosketan aritzen diren pertsonak dituztenak,

baldin eta horiek ezin badute frogatu legea betez erosi dituztela.

82. artikulua. Zehapenen publizitatea

Lege honi jarraikiz ezarritako zehapenak zehapen organoak publiko egin ahalko ditu Erregelamendu bidez ezarritako diren irizpideetan oinarriturik, administrazio bidean behin irmo bihurtu ondoren.

83. artikulua. Zehapen espedienteak ebazteko epea

Lege honek araututako zehapen espedienteak ebazteko epea urtebetekoa da.

Xedapen gehigarria

1. Nafarroan dauden eta kultur intereseko ondasun deklaraturik edo ondasun higigarrien inbentario orokorrean sarturik dauden ondasunak, indardun araudiarekin bat, Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak eta katalogaturiko ondasunak izanen dira aurrerantzean, hurrenez hurren. Lege honek indarra hartzeko unean hirigintza planetako kultur ondarearen katalogoetan sarturik dauden ondasun higiezinak toki intereseko kultur ondasunak izanen dira aurrerantzean eta Nafarroako Kultur Ondarearen Katalogoan sartuko dira, salbu eta Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunak badira.

2. Nafarroako gazteluak Foru Komunitatearen intereseko ondasun direla deklaratzeko da.

Xedapen iragankorrak

Lehendabizikoa. Ondasunak kultur interesekoak direla deklaratzeko espedienteen tramitazioa eta ondorioak, lege honek indarra hartu aurretik irekitakoenak, Foru Komunitatearen intereseko kultur ondasunetarako lege honek berak ezarritakoak dira. Espedienteen tramitazioak araubide juridiko berriaren arabera jarraituko du.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak sei hilabeteke epean, gehienez, lege honen garapen eta aplikaziorako arauak emanen ditu. Bien bitartean, lege honek indarra hartu arte gaia arautzen zutenek izanen dute indarra, lege honen aurka jotzen ez duten alderdietan.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak sei hilabeteke epean igorriko du Parlamentura herri kultura sustatu eta babesteko lege proiektu bat, ondare higiezinaren inguruan lege honetan ezarritakoa garatzeko.

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapena

Lege honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Joxe Pernando Barrena Arza jaunak Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea 2002ko ekainaren 28an egindako osoko bilkuran onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Legearen behin betiko testua, ordea, ez dator bat legea taxutzearren Parlamentuan eratu zen ponentziak onetsitako irizpenarekin. Hori dela-eta, beharrezkoa da lege proposamen honen bidez berreskuratzea ponentzian adostu zen testua, eta hartara, kendu ziren artikulua eta idatz-zatiak legeari gehitzea, etorkizunean legearen edukia hobetzearren egin litezkeen lege-aldaketan oinarri indarduna izan daitezen.

1. artikulua. II. kapituluaren –Sentsibilizazio neurriak–, 6. artikuluan –Hezkuntza plan eta

proiektuetako jarraibideak–, idatz- zati bat gehituko da. Hona testua:

Egoki iritziz gero, Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak foru lege honetan hezkuntza arlorako ezarritako neurrien garapenari buruzko informazioa jaso ahal izanen du Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko urteko txostenean, edo bestela, informazio berariazkoa eman ahalko du.

2. artikulua. III. kapituluaren –Aurreneurriak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Emakumeari laguntzeko zentroak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatu eginen du egungo emakumeei laguntzeko zentroeiei eutsiko zaiela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean laguntza orekatua emateko behar den zerbitzu espezializatuen egiturarekin.

2. Hogeita mila biztanle baino gehiago dituzten herriek emakumeari laguntzeko zentro bat edukiko dute gutxienez ere. Merindade buruetan ere zentroak egonen dira. Betiere, zerbitzu hori Foru Komunitate osoan bermatuko da.

3. Emakumeari laguntzeko zentroak lankidetzan estuan arituko dira zerbitzu sozialekin, osasun zerbitzuekin, eskola orientazioko zerbitzuekin eta larrialdietarako eta herritarren segurtasunerako zerbitzuekin, indarkeria-egoerak antzeman eta haiei aurrea hartzeko. Halaber, herritar guztiei zuzenduriko genero berdintasunerako programak egiten dira.

3. artikulua. III. kapituluaren –Aurreneurriak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako laguntza psikologikoko zerbitzua.

Foru Komunitateko administrazioak abian jarriko du indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako doako laguntza psikologikoko zerbitzu bat, haiek berrezi eta gizartean berregokitzeko.

Jarraitu beharreko tratamenduaren mota eta iraupena programaren profesional arduradunek erabakitzen dituztenak izanen dira.

4. artikulua. III. kapituluaren –Aurreneurriak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Familia-bitartekotza.

1. Familiaren arloko departamentu eskudunak doako bitartekotza-programak eskainiko ditu ezkontideen arteko krisi egoeran edo bikotea hausten denean gerta daitezkeen arazoei konponbidea emateko.

2. Familia-bitartekotza izanen da, ondorio hauetarako, espezialistek arlo psiko-sozio-familiarean egiten duten jarduketara, bikotearen bereiztearekin, dibortziaztearekin, ezkontzaren deuseztasunarekin edo bikotearen batasuna haustearekin loturiko alderdietan adostasun puntuak bilatzera bideratua, aldean arteko balizko arazo edo gora-beherak saihesteko.

5. artikulua. IV. kapituluan –Biktimentzako babesa eta laguntzak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Doako laguntza juridikorako eskubidea

1. Indarkeria sexistaren edo eraso sexualen biktima guztiei laguntza eta ordezkaritza juridikorako, izaera horretako delituengatik prozedurarako akusazio ekintzarako eta faltengatik epaiketetan legelari baten laguntza doakoa izateko eskubidea aitortzen zaie.

2. Halaber, eskubide horretan sartzen dira bikotea bereizteko, ezkontza deuseztatze edo dibortziazteko alde aurretiko behin-behineko neurrien eskaria, egitatezko bikoteetan zuhurtasunezko neurrien eskaria eta babes neurrien eskaria.

3. Halaber, laguntza juridikoa doakoa izanen da xede nagusia delitu ekintza baten ondorioz aitorturiko eskubideak administrazioari eskatzea xede duten prozeduretan.

4. Ahaleginak egiten dira biktimaren defentsa juridikoaz legelari bera arduratzeko, antzeko indarkeria ekintzen ondoriozko prozesu guztietan.

5. Doako laguntza juridikoa biktimaren baten heriotzaren ondorioz kalteturiko oinordekoei edo, biktima ezgaiturik badago, legezko ordezkarietara aplikatuko zaie.

6. Zerbitzua abokatuen elkargo ofizialekin itunduz gero, horiek indarkeria sexistako kasuetarako ofiziozko txanda bat eduki beharko dute. Txanda horretan sartzeko, prestakuntza edo trebakuntza ikastaro batzuk gainditu beharko dira, derrigorrez ezarriko direnak.

6. artikulua. IV. kapituluan –Biktimentzako babesa eta laguntzak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Herri ekintza.

1. Foru Komunitateko administrazioa eta toki entitateak, berdintasunaren aldeko organismoen edo beren xedeen artean emakumearen eskubideen defentsa duten entitate eta elkarten bitartez, herri-ekintzaz baliatuko dira indarkeria sexistako kasu larriengan, baldin eta biktimak hori eskatzen badu edo delitu ekintzak biktimaren heriotza badakar.

7. artikulua. IV. kapituluan –Biktimentzako babesa eta laguntzak– artikulua bat gehituko da. Hona testua:

Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak.

1. Abegi etxeak edo presako larrialdietarako pisu edo zentroak familia etxea abandonatzea erabaki edo babesik gabe egon eta indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako eta haien karguko adingabeentzako abegi baliabideak dira.

2. Baliabide horiek erabiltzeko, ez da beharrezkoa izanen eraso-egilearen aurkako salaketarik jartzea.

3. Bi baliabide zentro horietan, diziplina anitzeko taldeak arituko dira lanean. Talde horiek laguntza emozional eta psikologikoa eman, egin beharrekoko kudeaketei buruz aholkatu eta etengabeko lagun egitea eskainiko dute biktima bertan dagoen bitartean.

4. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak gutxienez Iruñean, merindade buruetan eta mendi eskualdeetan ezarriko dira.

5. Abegi etxeak edo larrialdietako pisu edo zentroek bermatu egin beharko dute bertan hartutako emakume eta adingabeei beharrezkoa duten konpainia egiteko eta esku hartzeko izanen direla profesionalak 24 orduz.

8. artikulua. IV. kapituluan –Biktimentzako babesa eta laguntzak–, 16. artikuluan –Etxebizitza eskuratzea–, idatz-zati bat gehituko da. Hona testua:

“2. Lehenetsunezko eskubidea babes publikoko etxebizitzak erosi eta alokatzeko eta babes sistema berezi bat ere aitortzen zaie, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, tratatu txarren biktima izan diren emakumeei.

9. artikulua. Azken xedapen berri bat gehituko da.

Foru lege hau argitaratu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea garatzeko erregelamendu bat emanen du.

Aldez aurretik, erregelamendu proiektua hila-betez jendaurrean jarriko da.

10. artikulua. Azken xedapen berri bat gehituko da.

Nafarroako Gobernuak urtebeteko epea izanen du gehienez ere, foru lege hau argitaratzen denetik aitzina, bertan jasotzen diren neurriak garatzeko. Horretarako, foru lege hau garatzeko

beharrezkoak diren diru-aurreikuspenak eginen ditu urteko aurrekontu orokorretan Nafarroako Gobernuak.

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunen.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

ZIOEN AZALPENA

1978ko Konstituzioa jatorri izan duen Estatuak aitortu du errespetatu eta babestu beharreko

ondare kultural komuna direla Espainiako herrien kultura, tradizio, hizkuntza eta instituzioak.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikulua Espainiako Konstituzioko 3.2 artikuluko hizkuntzen koofizialtasunaren printzipioa islatu zuen. Nafarroako Foru Komunitatean, "gaztelera da hizkuntza ofiziala" (Foru Hobetzearen 9.1 art.) "Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan"; "Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du" (Foru Hobetzearen 9.2 art.).

Horrek guztiak euskararen galeraren arrazoiak gaindiarazten lagundu ditu, oinarri hartuta gizartearen parte handi batek hizkuntzari dion estimazioa eta, orobat, hizkuntza bizitzarako nahiz komunikazio kultural eta sozialerako tresna bihur dadin duen nahia. Gizarteari jarraikiz, botere publikoek errealitate gisa hartu dute, eta hizkuntza bereki eta ofizial gisa ere bai. Euskara irakaskuntzan sartu da, eta hizkuntza arlote eta larrekua izatetik hizkuntza kultu izatera pasa da, erabat baliagarria egiten duten termino zehatzez hornitua, eta hainbat arlotan presentzia duena: hezkuntzan, literaturan, hedabideetan eta ikerketa akademikoan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen zioen azalpenean, euskararen arautzearen printzipioak ezarri ziren Foru Hobetzearen 9. artikuluekin bat. Hizkuntzari, balio kultural, sozial eta identitatearen arlokoa aitortu zitzaion; hizkuntza, giza komunikaziorako tresna nagusia denez, giza harremanetako funtsezko oinarri bihurtzen da, kolektibitateari bere identitatea ematen dion elementu, eta gizarteetako kideen elkarbizitza eta ulermenerako faktore. Historiaren sinbolo eta lekukotasun-emaile izaten da

hizkuntza; izan ere, erabiltzen duen herriaren esperientzia kolektiboa gorde eta transmititzen du belaunaldiz belaunaldi.

Euskara, Nafarroan, honen eraginpean dago oraindik ere: “hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen zailtasun eta aniztasunak, etengabeko gora-beherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokionez: batzuen hedakunta eta besteen atzerakada, batzutan hizkuntzaz kanpoko arazoiek eragina, dudarik gabe dira nabarmenenak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri direnen kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.”

Nafarroako herriaren identitatea dituen ondusun kulturalak egoki babestuz aldeztu da, zeren eta “Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz.

Printzipio hauetan ezartzen da foru lege hau, zeinek aipatutako konstituzio agindua eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan aurrikusitakoa garatzen bait du.”

16/1986 Foru Legeko 2. artikulua bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko aitortzen duen eskubideak eskatzen du hezkuntzan presentzia izan dezatela. Horrela ulertu zuen Nafarroako Foru Diputazioak, konpromiso eredugarria erakutsiz zer garai zen kontuan hartuta; “jabetzen baikara arazoaren larriaz eta gure balio kulturalen zaindari gisa dugun arduraz”, zioen 1972ko abenduaren 15eko erabakian.

Foru legearen funtsezko helburuen artean dago euskararen ezagutza babestea eta “euskararen irakaskuntza bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki” (1.2 art. a) eta c) letrak), 19. artikulua honela dio: “hiritar guztiek dute hezkuntza mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea”. Hori hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidearen (Konstituzioaren 3. artikulua, Foru Hobetzea-

ren 9. artikulua eta foru legeko 2. eta 6. artikulua) gauzatzea da.

Unibertsitate maileri dagokienez, 21. artikuluan besterik ez da espresuki aipatzen: “Nafarroako Gobenuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanez, irakaslegoaren prestakuntzarako goi-mailako zentruen ikasketak planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezko den irakaslegoaren gaikuntza egokia bermatzen.” Hor ez da arautzen hizkuntza ikasketak planetara eramateko gaia; Gobernuari agindu bat ematen zaio, ordea, prestakuntza-ekintza horiek sustatu ditzen, eta, horrenbestez, izan daitezkeen euskarazko irakaskuntza emateko gaitasuna duten irakasleak.

Horrek ez du esan nahi, ordea, legeak ez duenik irakaskuntzari buruzko arau orokorrik, eta unibertsitateko irakaskuntza sartzerik ez dagoenik arau orokor horien pean eta herritarrek hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidearen pean (2.1 artikulua). Foru legearen helburua da “euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea (...) irakaskuntzan” (1.1 art.), eta funtsezko helburuetako bat da “euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea borondatezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki” (1.2 art. c) letra) 19. artikulua adierazpen argi eta garbia egiten du: herritarrek irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea dute “hezkuntza mailetan”, hots, guztietan, hurrengo arauetan ez baita bat ere kanpoan uzten, ezta unibertsitate maila ere. 19. artikulua aipatzen dituen kapituluak arau orokorrak ematen jarraitzen dute; gainera, eskubidea aipatzen dute behin eta berriz, eta, eskualdearen arabera, betebeharrak bat edo beste ezartzen dute administrazioarentzat:

Horrelaxe ulertu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salak, zeinak 1998ko abenduaren 9ko epaian honela baitzioen: “Ez da egia Euskarari buruzko abenduaren 15eko 16/1986 Foru Legeak ez duenik hartzen unibertsitateko irakaskuntza. Lege horretako 1. artikulua irakaskuntza aipatzen du, besterik gabe, eta 24. artikulua eta 26. artikulua unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntzaren artean egiten duten bereizketa bakarra 25. artikuluko 2. idatz-zatikoa da, non berriaz aipatzen baitira unibertsitateaz besteko mailak. (...) Nafarroako Unibertsitate Publikoak Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan (5. artikulua b) letra), baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatu-tuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean (90. art. h) letra), ulertu

behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauetz ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan. Horiek horrela, aipatu xedapenekin bat dator euskarazko hezkuntza-lerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Socialistas del Parlamento de Navarra, Eusko Alkartasuna eta Askotarikoa-Ezker Batua Parlamentuko taldeek Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuten, eta, beharbada, unibertsitateko irakaskuntzari buruzko erreferentzia zehatzik ez izateak eraginen zuen artikulua bat gehitu zedin proposatzea (20 bis artikulua); hone-lazioen: “Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zeinek bere eskumenen esparruan, beharrezko neurriak hartuko dituzte euskarazko eta euskararen irakaskuntza bermatzeko lanbide-heziketan eta unibertsitatean, hurrenez hurren, eskariarekin bat.”

Nafarroako Unibertsitate Publikoa apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bidez sortu zen, eta eginkizun hau esleitu zitzaion: “Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa, irakaskuntza, azterketa eta ikerketaren bidez” (1. art.). Konstituzioko 27.10 artikulua unibertsitateari aitortzen dion autonomia erabiliz, unibertsitateak Estatutuak onetsi zituen, non Euskarari buruzko Foru Legeak eremu mistoko irakaskuntzari buruz ezarritako printzipioak jaso baitzituen. 6.1 artikulua hau ezartzen du: “Gaztelania eta euskara dira Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere egiten dituen hizkuntzak eta beraz, unibertsitari guz-tiek dute biak jakin eta erabiltzeko eskubidea.”

Hizkuntza-eskubidea 102.1 artikulua aitortu zuen, non hau xedatu baitzen: “Unibertsitateko Komunitateko partaide guztiek dute gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, ondoko artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta Unibertsitatearen esparruaren barruan inor ez da bereiztua izango bi hizkuntzetako edozein erabiltzeagatik.” Halaber, 103.1 artikulua hauek ere eskubideak zirela aitortu zuen: harremanak euskaraz izatea, euskaraz hitz egitea, lanak euskaraz aurkeztu eta argitaratzea eta “Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, eta lanak, azterketak edo frogak egitea.” Unibertsitateko organoak “behartuta daude eskubide hauek bete daitezen bermatzera” (103.2 art.)

Unibertsitateko jardueretan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza eta neurriak aurrerikusten dira 104. artikuluan, eta esaten da uniber-

tsitateak euskarazko irakaskuntzen garapena bultzatuko duela, gizartean dauden beharren eta eskaeren arabera; unibertsitateak euskarazko argitarapenak egin daitezen bultzatuko duela ere esaten da.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari eskumena ematen dio hizkuntzaren araubidea ezartzeko; horren frogagarri da abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea. Gehiengo osoa behar duen legea da, Foru Hobetzearen 20. artikulua ezartzen duenez. Edonola ere, arautze hori unibertsitatearen autonomia errespetatuz egin behar da, printzipio konstituzionala baita hori; Nafarroako Unibertsitate Publikoak Estatutuak onestean erabili zuen autonomia hori. Hori izan zen hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten autonomia erkidegoek erabilitako bidea; 18/1986 Foru Legeak ez zuen berriazko arautzerik egin, baina horrek ez du esan nahi gaiari buruzko lege-hutsunerik dagoenik. Unibertsitatearen autonomia kontuan hartuta, Parlamentuak ezartzen duen lege-markoak autonomia hori gauzatzeko aukera eman behar du; hau da, arauak ezin dira zorrotzegiak izan, bestela autonomia hori desitxuraturik eta edukirik gabe gera daiteke.

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskaraz hurrengo arloetan izanen duen araubidea ezarriko du Estatutuetan, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearekin bat betiere: ikasketak-planetan, curriculumetan eta ematen dituen irakaskuntzetan, ematen dituen zerbitzuetan eta Unibertsitateko komunitateko kide ororekin sortzen dituen harremanetan.

2. artikulua. Euskarazko irakaskuntzak borondatezotasunaren printzipioari jarraikiz gauzatu dira; horrela, curriculumeko zenbait enborreko ikasgai eta aukerako ikasgai ikasteko aukera emanen da, gai horretako hiztegi teknikoak eta hizkera barneratu ahal izateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum bakoitzean ezarriko du zer enborreko irakasgai oinarritzko beharko diren aipatu helburuak lortzeko, kontuan hartuz behar soziala, benetako eskaria eta prestatutako irakasleen eskuragarritasuna.

3. artikulua. Irakasle-ikasketetan besterik ezin izanen da euskarazko lerro elebakarra ezarri, hezkuntza sistemaren beharrei aurre egiteko eta euskarazko edo euskararen irakaskuntza emanen dutenak egoki prestatzeko.

Xedapen gehigarria

Foru lege honetako xedapenak goi mailako eta unibertsitate mailako zentro publikoetan aplikatuko

dira, orain diren guztietan eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean izan daitezkeen guztietan.

Xedapen iragankorra

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen araubidea ezarri arte, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikatuko da bertan.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira.

Azen xedapenak

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak barne merkataritzaren gaineko eskumen osoa du.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan Merkataritza arautzeko Foru Legea onetsi zuen. Foru lege hartan ezarri zen legeak indarra izanen zuela salerosketaren arloan eta lurraldearen antolamenduen arloan behin betiko ebazpena eman ez zaien saltoki handiei buruzko baimen espedienteetan.

Legeak lurralde ereduaren figura sortu zuen legearen printzipio inspiratzaileak –txikizkako merkataritzak ohiko egiturari eustea, merkataritza jardueren hazkundera harmoniatsua eta orekatua izatea, plusbalioen banaketa zuzenagoa izatea eta gizarte eragileen parte-hartzea egiazkoa izatea– edukiz hornitzeko.

Lurralde eredu loteslea izanen da; horrela, baimenak lortzeko prozedurak arautu egingen dira, eta aldi berean, inplikaturako administrazioen erabakiak irizpide objektiboekin definituko dira.

Legegileek lurralde ereduaren garapenari eman zioten garrantzia bosgarren xedapen gehigarrian jasotzen da, hilabeteko epea ezartzen

baita Gobernuak lurralde ereduaren arloan legea garatzeko erregelamendua onets dezan.

Lurralde eredia munta handiko afera izan arren, Gobernuak agindu hori saihesten ari da, eta, Nafarroako Merkatarien Federazioak agerian utzi duenez, gaur egungo zehaztugabetasun juridikoa baliatu nahi du sektorean tentsio larria eragiteko, Nafarroan merkataritzaren banaketan desoreka larria eragin dezakeena.

Aldaketa honen bidez ekidin egin nahi da zehaztugabetasun juridiko hori, ekidin daitekeen modu bakarrean ekidin ere, alegia Biltzarreko talde gehienen jarrerari erantzunez.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 11ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena onets dezan pro-

posatu dugu, Biltzarreko Erregelamenduko 155.1 artikuluan ezartzen den irakurketa bakarreko prozedurari jarraikiz.

Foru lege honen bidez xedapen gehigarri bat gehituko zaio Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 11ko 17/2000 Foru Legeari.

Artikulu bakarra.

Seigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko moratoria ezarriko du saltoki handiak baimendu eta horietarako lizentziak ematerakoan, epe horretan Nafarroak indarrean izan beharko baitu saltoki handien lurralde eredia.

Legea indarrean sartzean behin betiko ebatzi gabe dauden espediente guztiei aplikatuko zaie moratoria hori.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari.

Azken aldi honetan agerikoa da Nafarroako Erriberako gurasoak gero eta haserretuago daudela, oinarrizko laguntza mailako nahiz ospitaleko laguntza mailako pediatriako laguntza-zerbitzuen funtzionamendu txarra dela-eta, eta bereziki Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuetako funtzionamendu txarra dela-eta.

Akats horiek –orain dela urte asko pairatzen baitira– bere gordinean azaltzen dira une honetan, besteak beste, jaiotza-tasaren eta haur etorkinen hazkundearengatik, horrek ezinbestean eragi-

ten baitu pediatriako laguntza eskaerak gora egitea, hala oinarrizko osasun-laguntzakoak nola ospitaleko larrialdietakoak.

Edozein kasutan ere, horren guztiaren oinarrian Reina Sofía Ospitaleko langileen arloko planifikazio txarra dago. Hiru pediatra baino ez dago han, eta zerbitziburua guardiak egitetik salbuetsita dago, eta beraz, bi espezialistak bete behar dituzte larrialdietako guardiak. Hori dela-eta, guardiak ez dira bertan egotekoak, baizik eta lokalizatuak, eta horrek defizit ikaragarria dakar oinarrizko laguntzan nahiz diagnosi eta tratamenduetan.

Bertan egoteko guardiak egin ditzakeen pediatriako sendagile espezialistarik ez dagoenez, Departamentuak aipatu guardiak egiten jarri zituen behin-behineko kontratuak dituzten oinarrizko laguntzako pediatriak; halatan, dagozkien eginkizunak baino askoz ere gehiago bete behar dituzte, eta kontratuak berriro ahal izateko bakar-bakarrik onartzen diren baldintzatan lan egitera behartzen dituzte.

Zentro batzuetako pediatriako laguntza familiarik medikuek eman izan dute; izan ere, oinarrizko laguntzako zentroetan behin-behineko kontratua duten pediatra batzuek ospitaleko guardia lokalizatuak egiteko betebeharrak implizituari ezetza eman diote, eta horrekin batera, oinarrizko laguntzaren kalitatearen galera eragiten duten beste baldintza batzuk ere gertatu izan dira, kalitatea izaki lan horren xede nagusia. Sendagile horiek ezin dute ospitaleko pediatriako guardiarik egin, ez baitute ez prestakuntza ez titulazio berariazkorik, eta hortaz, ez da arazoa konpontzen. Konponbide hori, horrenbestez, ezin da onartu, horrek esan nahi baitu haur askori ukatzea ezinbestekoa duten laguntza espezializatua, kualifikatua, jarraia eta kalitatezkoa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Oinarrizko laguntzako zentroetako pediatriako laguntza pediatriako sendagile espezializatuek emanen dutela berma dezan.

2. Tuterako Reina Sofía Ospitaleko pediatriako larrialdien laguntza –bertan ematen dena– normaliza dezan, eta guardiako hiru txandak behar adina espezialistarekin bete ditzan.

3. Berehala egin dezan zerbitzu horiek bermatzeko beharrezkoak diren lanpostuak betetzeko lehiaketa publikoa, eta amai dadin kontratuen behin-behinekotasuna eta eginkizunak familiako medikuek edo egoiliarrek egin behar izatea, horrek beti eragiten baitio osasun-laguntzaren kalitateari.

Iruñean, 2002ko irailaren 22an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarrako merindadean uraren arazoak konpon ditzan eta Ega ibiaia erregulatzeko plangintza bat presta dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari.

Uraren arazoa konpontzea Nafarroako zenbait eskualdetan garapena oztopatzen duten zalantzak eta beldurrak uxatzea da. Halatan, Lizarrako merindadean –behin baino gehiagotan eztabaidatu izan da horri buruz–, nekazaritzak, industriak

eta zerbitzuek ezinbesteko dute etorkizunari begira uraren arazoa konpontzea. Horrela indartu egin daiteke nekazaritzako elikagaien sektorea, Nafarroan hain garrantzitsua dena. Eskualde horren garapenerako funtsezko gaia da hori, eta konpondu behar dugu.

Uraren Kontseiluak 1996aren hasiera aldean onetsitako Ebro Ibarreko Hidrologia Planak aurreikusi zuen Oteitzan 56 Hm³-ko urtegia eraikitzea –3.979 milioi pezetako aurrekontua zuen, eta Lizarraldeko zenbait herritan 8.700 Ha transformatzeko bidea emanen zuen, transformazio horretan 10.000 milioi pezeta gastatuta–.

2001-2008 bitarteko Hidrologia Plan Nazionalaren garapena arautzen duen legea irakurtzean ikus daiteke desagertu egin direla bertatik Oteitzako urtegia nahiz Arga ibarra arautzeari buruzko 1996ko planean aurreikusitako neurriak. Horrek nahasmena eta ziurgabetasuna eragiten du ukitutako eremu-tako biztanle nahiz arduradun publikoen artean.

Aintzat hartzeko moduko beste aukera bat da adar bat eraikitzea Artaxoako urmaletik Vianaraino –aukera hori Nafarroako Ubideari buruzko hasierako azterlanetan ere aztertu zen, Nafarroako Ubideko “lehor lur ureztagarrien” artean azaltzen zen–. Hala ageri da jasota “Nafarroako Ubidearen ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko eta haren eremu ureztagarriak eraldatzeko prozedura” agirian.

Orain arte ez da gai horri buruzko behin betiko erabakirik hartu, eta botere publikoei dagokie Foru Komunitatearen garapen harmoniatu eta ordenatua ahalbidetu eta sustatzea.

Ureztaketa Foru Komunitatean aberastasun sortzaile garrantzitsua da; izan ere, BPGaren % 17k du sorburua, neurri handi batean, ureztalurretan lortutako produkzioetan eta horien eraldaketan. Oinarritzkoa da, landa inguruneke herriak sendotzeko faktorea den aldetik, eta horrenbestez, botere publikoen arreta osoa merezi du. Ureztaketak orobat du funtsezko garrantzia lurralde antolamenduan desertizazioari eta erosio prozesuei aurre egiteko; ez da ahaztu behar, ezta ere, eragina duela landare-osasuneko produktuen eta ongarrien erabilerari lotutako inguruneke alderditan –kutsadura lauso deitzen den horretan alegia–, eta horrenbestez, beharrezkoa da ureztaketarekin lotutako jarduerak jasangarritasunaren printzipioari jarraikiz egitea, gaur egungo errendimenduek ez dezaten kalterik eragin etorkizunekoetan.

Errealitateak hainbat gauza onartzera garamatza, hala nola Nafarroak ureztatzeko azalera gutxi duela inguruko lurraldeekin konparatuta, eta usadiozko ureztatzaileek ez dituztela begi onez ikusten, hasiera batean, ureztatzeko sistema aldatzeko prozesuak.

Hainbat toki entitatek –Lerín, Torres del Río, Elizagorria, Andosilla, Arroitz– eta nekazaritzako

antolamenduk –UAGN– agerian utzi dute beharrezkoa dela Ega ibaia arautzea, Lizarraldeak ureztalurrak eduki ahal izateko urmael txikiak erakitzearen, beste aukera batzuekin batera, edo beste formula alternatibo batzuk bilatzearen gisako arazoak konpontze aldera.

Erakunde horiek eskatu dute 14.000 Ha eraldatzeko, eta ez, Foru Komunitatean egun indarra duen Ureztaketa planaren arabera, hurrengo hiru urteotan Lizarrako merindadean eraldatzea aurreikusitako 2.000 Ha.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du buka dezan azterlana jakiteko posible ote den Nafarroako Ubidearen adar bat Artaxoako urmaletik Vianararino eraikitzea –Lizarrako merindadearen ur arazoak konpontzearen–, eta planifika dezan Ega ibaiaren arautzea, Lizarraldeko hainbat herri –Lerín, Torres del Río, Elizagorria, Andosilla, Arroitz eta beste– lehor lurra ureztalur bihurtu ahal izateko. Helburua da biztanleria finkatzea, nekazari-exodoa geldiaraztea eta usadiozko nekazaritza beste nekazaritza mota batzuekin batera jorratu ahal izatea.

Iruñean, 2002ko irailaren 20an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 30ean egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.


Jakin izan dugunez, Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuak ontzat eman zuen Monreal dorrean obrak egiteko Tuterako Udalak eskatutako proiektua, baina Vianako Printzea erakundeak proiektu hori geldiaraztea erabaki du. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Eman al dio Tuterako Udalak herriko Monreal dorrean egin nahi den obraren proiektuaren berri Vianako Printzea erakundari?

2. Zer arrazoi zehatzek eraman dute Vianako Printzea erakundea proiektu hori geldiaraztera?

Iruñean, 2002ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	